

418.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA -2022KO-MARTXOA



# MAXIXATZEN

ZENBAKI HONEKIN BATERA

+ GUKA ALDIZKARIA

INKLUSIOA

## MAREAREN BENETAKO TANTAK



INNOVA

AZPEITIA

HORTZ KLINIKA

Jose Artetxe 5 • 943-02 59 55

ORTODONTZIA  
AURRERAKOiena  
ZURE ESHURA





**Ixkutuko altxorra bueltan da!**  
Informazio gehiagorako zatoz guregana.





# MAXIXATZEN 418

2022-MARTXOA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
AINHOA BERISTAIN

## Aurkibidea

- |    |  |    |  |
|----|--|----|--|
| 5  | <b>Iritzia</b> Andoni Elduaien, <i>Bizigoza.</i>   | 20 | <b>Elkarrizketa</b> Intza Arakistain, artista.             |
| 6  | <b>Hitz bitan</b> Irantzu Iturbe, arteterapeuta.   | 24 | <b>Bazkidetza eta Zakelmari</b>                            |
| 8  | <b>Izpiak eta hizkiak</b> Jon Andoni Martin, <i>Egiaren ederra.</i>                                  | 25 | <b>Iritzi grafikoa</b> Gorka Larrañaga                     |
| 10 | <b>Iritziak</b> Joseba Epelde, <i>Azken salbitxak</i> ; Yolanda Larrañaga, <i>Maite zaitut, ama.</i> | 26 | <b>Erretratua</b> Eneritz Artetxe, bertsolaria.            |
| 12 | <b>Erreportajea</b> <i>Eskutik helduta, inklusioa ipar.</i>  | 30 | <b>Plazan bazan</b>  |
| 18 | <b>Iritzia</b> Ioritz Gonzalez, <i>Umezurtz birtualak.</i>   | 32 | <b>Atzera begira</b> <i>Antzinako garraioak Azkoitian.</i> |
|    |  | 36 | <b>Bestaldetik</b> Javier Beristain.                       |
|    |  | 40 | <b>Klik!</b> <i>Aldabaz aldaba.</i>                        |
|    |  | 44 | <b>Iritzia</b> Maite Lopez, <i>Titiak.</i>                 |
|    |  | 46 | <b>Euskara</b> Ixabel Jauregi, <i>Euskalduna, nor?</i>     |

MAXIXATZEN

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-85 36 17  
maxixatzen@maxixatzen.eus  
www.maxixatzen.eus

### Erredaktoreburua

Ane Olaizola  
**Erredaktore taldea**  
Anartz Izagirre  
Andoni Elduaien  
Ane Olaizola  
Nerea Uranga  
**Diseinu arduraduna**

Ibixaro Iraeta

### Publizitate arduraduna

Egoitz Azkoitia  
**Zenbaki honetako kolaboratzaileak**  
Jon Andoni Martin  
Joseba Epelde  
Gorka Larrañaga

Yolanda Larrañaga

Ioritz Gonzalez  
Ainhoa Beristain  
Miren Elorza  
Kepa Alberdi  
Maite Lopez  
Ixabel Jauregi  
Naia Arrizabalaga

### Administrazio

**Inprimategia**  
Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-706/97  
**ISSN:** 1137-8891  
**Tirada:** 850 ale

TOKIKOM



Gipuzkoako Foru Aldundia



AZKOITIA  
Udala



maxixatzen  
euskaldunon elkartea

# Naike

## TATTOO STUDIO

JULIAN ELORZA E AZPETA  
943 17 88 51



# EGUZKI

belarjenda  
diestetika  
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-50 34 47 AZKOITIA  
Urbitate 9 bis 943-15 00 23 AZPETA

Web proiektuak  
Software Ingeniaritza

# elkarmedia( )

info@elkarmedia.eus  
943-85 08 74

# etk

Informatika Zerbitzuak  
943-02 63 29  
www.etkinformatika.com



arkitekturaestudioa  
santakara kalea 35 | 943083487  
www.brarkitektura.com



Iturrondo, 7 • 943-02 56 88  
Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 98  
AZKOITIA



NAGUSIA 81 • 943-08 30 32  
www.tta-kun.com • azkoitia\_ttakun@hotmail.com




Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 82

# ETXEZA TABERNA

Etxeza Etxea, Z/G. • 943-85 20 31

# artelan

Taldea Arango  
NAGUSIA  
Tel. 943 85 18 41  
943 73 98 84



- Marrazkia
- Olio-pintura
- Akwarela
- Pastela-pintura
- Kola-manatila
- Zeramika
- Plafelina
- Estukona

# zur

OGARTOROKI  
SANDWICHAK ETA HABIL-PROZAK  
ENTZALOKI  
PAGAK  
GARAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA  
TEREZA HANDIA ZUZENEKO EMANALDIK

KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

ARTISAU PIZAK  
ENTZALOKI  
FRITOKI  
PLAZA KONTRATUAK  
RACION  
OGARTOROKI  
ARDO ESKANTZA ZABALA  
SOLU ETA ARDO ENFO  
PAREGABEK  
LAPURGETAN 30.00 ATTE BERTIA

# LATZ

TABERNA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19



# ALDAKO

## SARE ETA INFORMATIKA ZERBITZUAK

SAREAK, IRTEERAK ETA  
ORDENAGAILU, MUGIKOR  
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia  
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 52 75  
aldako.informatica@gmail.com



IBAIONDO BERRI  
53 ETXEBITZA BERRI

www.aranbarri.com



ARANBARRI

# Bizigoza



ANDONI ELDUAIEN

**A**riketatxo bat hasteko. Ondo pasatzeko asmoa duzunean, zertan pentsatzen duzu? Astean zenbat denbora igarotzen duzu ondo pasatzen duzun jarduerak egiten edo benetan gozatzen duzun ekintzetan parte hartzen? Inoiz baino tristeago eta ilunago ibili gara azkenaldian, eta bada aurpegiari zor diogun irribarrea ateratzen hasteko ordua.

Gure arazoak ahazten laguntzen diguten ekintza guztiak ez dira dibertigarriak, guztiek ez baitigute poza ematen. Eroaren moduan lan egiteak, adibidez, lagun diezaguke beste zenbait arazo buruan ez izaten, baina, oro har, ez gaitu dibertitzen, eta gauza gutxi konpontzen laguntzen du. Gure gorputza osasuntsu mantentzeko kirola egin behar dugun moduan, norbere burua osasuntsu izateko ezinbestekoa da nola hala dibertitzea.

Tristeza da, baina egun, gero eta zailagoa da ondo pasatzea. Ia ez dugu denborarik ezertarako, eta are gutxiago, ondo pasatzeko, gainerako gauza guztiei eskaini behar izaten baitiegu gure eguna. Okerreko ustea da atsedean hartzeko modu bakarra edo onena oheratzea zein telebista ikustea dela. Horrelako jarduerak gorputzari atsedean hartzen laguntzen badiote ere, ez dute laguntzen buruko kezkek, arazoez eta bestelakoek eragindako nekea ezabatzen. Neke mota horretarako, dibertitzea da onena.

Baina, zenbat jarduera egiten dugu ondo pasatzeko edo denbora libre betetzeko? Pertsona bakoitzak desberdin disfrutatzen du, izaeraren, balioen, sentimenduen, pentsamenduen eta aurretik bizi izandako esperientzien arabera. Pertsona batentzat oso dibertigarria izan daitekeena, oso aspergarria izan daiteke beste batentzat; hori ere horrela da. Zenbaitek ondo pasatzen dute bakarrik egin ditzaketen jarduerekin, eta beste pertsona batzuek lagunak behar dituzte alboan ondo pasatzeko. Batzuek nahiago dituzte ahalegin handia eskatzen duten jarduerak, eta beste batzuek jarduera lasaiagoak bilatzen dituzte.

Eta zertarako orain arte eman dudana erretolika hori guztia? Iruditzen zait garrantzitsua dela norbere burua zerekin edo nola dibertitzen den jakitea. "Jakituria" horrek asko laguntzen duela ohartu naiz, inor ez baita bere burua eta gorputza nolakoak dituen ezagututa jaio.

Aspaldian kuadrillako horrenbeste lagun elkarrekin egon gabe geunden, eta karnabaletan elkartu ginen, mozorropean. Goizean goiz hasi eta iluna ia argitu arte ibili ginen kalean. Lagun taldean ikaragarri gozatzen dut, une horiek nire gozamen iturri dira. Berri Txarrak taldeak *Katedral bat* abestian zioen moduan, "lagunarteko uneak luzarazi". Ni horretan ahalegintzen naiz, eta zuek ere horretara animatu nahi zaituztet. Bizi eta goza! ■■■

## NORBERE BURUA OSASUNTSU IZATEKO EZINBESTEKOA DA NOLA HALA DIBERTITZEA

# "Arteterapia saioek aukera eskaintzen dute norberarekin bat egiteko"

**TESTUA ETA ARGAZKIA:** ANE OLAIZOLA

Irantzu Iturbe (Azkoitia, 1991) arteterapeuta da, eta Azkoitiko Udalak emakumeak ahalduntzeko antolatzen dituen ikastaroen artean, arteterapia saioak eskaintzen ditu.

## **Zer da arteterapia? Eta zein du jatorria?**

Sorkuntza eta artea erabiltzen diren terapietako bat da; terapia alternatiboen barruan nahiko berria da. Finean, arteterapiaren funtzioa da barruan duzun eta hitzez adierazi ezin duzun hori beste hizkuntza batzuen bidez kanporatzea. Herrialde batzuek terapia ofizialtzat dute arteterapia, eta ospitaleetan, espetxeetan edota hezkuntzan erabiltzen dute.

Edozeinentzat da aproposa, eta esaterako, gaixo terminalekin zein Downen sindromea dutenekin oso ongi funtzionatzen du. Indarra hartzen ari den diziplina da, emaitza onak dituela ohartu direlako.

## **Zer egiten duzue saioetan?**

Arteterapia bidaia bat da, eta bidaia guztietan bezala, lehenengo maleta prestatzen duzu. Arteterapian erremintak dira motxila hori: margoak, plastilina, buztina, musika... Aurreneko saioetan, taldea eratu, kideak elkar ezagutu eta segurtasun espazio bat sortzen dugu. Asmoa da norbera gustura joatea saioetara, den bezalakoa adierazteko askatasuna edukitzea eta besteen prozesuarekin gozatzea. Izan ere, barrura begiratzen laguntzen du arteterapiak, baina taldera ere irekitzen da; taldekideen arteko harremana ere asko lantzen da.

## **Prozesua, beraz, norbanakoarena zein kolektiboa da.**

Hori da. Norbere buruarekin egoteko eta denbora norbere buruari oparitzeko tarreak dira saioak. Horiek hiru zati dituzte: aurrenekoa berotze ariketa izaten da, eta batzuetan erreferente diren artista emakumeak aipatzen ditugu. Ondoren, proposamen artistikoa egiten dugu, eta saio bakoitzean zerbait desberdina lantzen dugu, hala nola autoestimua, harremana, dualtasuna, beldurra... Obra amaitzen dugunean, hori taldean erakustea da azken pausoa. Berdin dio amaierako lana nolakoa den, prozesua da garrantzitsua.

## **Nola interpreta daiteke norbera nola dagoen arte adierazpenaren bidez?**

Arteterapia bizi egin behar da, ez da mentalki uler daitekeen zerbait. Prozesuan, askotan ez dakizu zer ari den gertatzen, eta amaieran konturatzen zara. Era berean, nire zeregina da prozesuan zehar egiten dituzten lanak eta erabiltzen dituzten erremintak aztertzea.

## **Helburu terapeutikoetarako ez ezik, norberaren garapenerako ere egokia izan al daiteke?**

Horretarako erremintak ematen ditugu. Benetako terapia batek tresnak eman behar dizkigu, horiek ondoren gure bizitzan ezartzeko eta gure kasa lantzeko. Hori da oinarrizkoena.

## **Zein dira saioen onurak?**

Saioek aukera eskaintzen dute norberarekin bat egiteko. Autoestimua eta autonomia asko lantzen ditugu; izan ere, sortzaile bihurtzen gara, eta horrek ahaldundu egiten gaitu.

## **Emakumeak ahalduntzeko ere egokia da, beraz.**

Emakumeek, oro har, espresiorako mundu zabala eta aberatsa daukagu, baina egunerokoan ez dugu praktikan jartzen. Askok esaten dute: "Iruditzen zait intuizio handia dudala, baina itzalita daukat". Arteterapiak aukera ematen du adierazpen emozionala, intuizioa eta zentzumenak lantzeko. Esparru horiek lantzean, gure buruarekin konektatuago sentitzen gara, eta horrek ahaldundu egiten gaitu. Bat egite horrek, gainera, bizitzaren aurrean altxatu egiten gaitu. Bestalde, emakumeek taldean lan egiten dutenean energia polita sortzen da. Bakoitzaren bizipenak ez dira berberak, baina gauza asko ditugu komunean.

## **Iaz zer-nolako emaitza izan zuen ikastaroak?**

Adin desberdinetako emakumeak batu ginen, eta hori oso polita izaten da. Oso gustura amaitu zuten ikastaroa, eta niretzat ederra izan zen haiek nola hasi ziren eta zer prozesu izan zuten ikustea; oso emankorra izan zen. Aberatsa da bakoitzak daraman motxila partekatzeak besteari zertan eragiten dion ikustea. ■■■



# Egiaren ederra

---

**ARGAZKIA:** JON ANDONI MARTIN

---

**TESTUA:** AITOR ARRUTI

---

Egia-osteko garai hauetan, hitzaren kotizazioa beherantz doa balioen merkatuan. Irudia, aldiz, gero eta balio handiagokoa da. Nahi den moduko itxura ematea da orain kontua, egiazkoa izan ala ez, handiagokoa da. Nahi den moduko itxura ematea da orain kontua, egiazkoa izan ala ez.

Hala, benetako zerbait aurkitzeak hunkitu egiten gaitu, ez baita ohikoa. Argazkiko irudia bezala; ezohikoa da, eta edertasuna dario egiaz, on egiten digun egiaren ederra. ■■■







## Azken saltxitxak

**2**021eko urriaren amaierako astelehen batean izan zen, seguru asko. Asteroko erosketek Maxi Eroskira eraman ninduten, adin batetik aurrera gure bizimoduaren zutabe bihurtzen ditugun ohitura horietako bati jarraituz. Saltokiaren sarreran saskia hartu, eta ohiko ibilbidea egin nuen, errutinazko mugimendu automatikoekin, ezer berezirik sentitu gabe, egin beharrekoa lehenbailehen amaitu eta etxera bueltan joateko, lana bainuen zain, eta ama. Betikoak eta noizean behingoak saskiratu nituen, saltxitxa-zorro bat tartean, neu zalea ez izanagatik, amak gustuko baitzuen "txorizoa" (hala esaten zion saltxitxari ere dementzia gain hartzen hasi zitzaionetik).

Egun batzuk geroago, ama hilda eta lurperatuta zegoen, eta oharkabean erositako saltxitxa-zorro hark hozkailuan jarraitzen zuen, irekita. Automatikoa, mekanikoa eta ia erabat neutroa izandako erosketa bat hunkigarri bihurtu zuen, ezustean, amaren heriotzak. Eta, jakina, gauza bera gertatu zen Atanoko errekarra egindako azken paseoarekin, Gotas de oro koloniaz eskumuturrak eta aurpegia igurtzi zituen azken ostiral goizarekin eta beste hainbat ohiko gorabehera eta

**IHESLARI TREBEENA  
ERE ATZETIK  
HARRAPATZEN DU  
BIZIALDIAREN  
EPE-MUGAK**

gauza apalekin. Izan ere, azaltzen zailak diren era guztietako emozio eta erreakzioen artean, maite ditugun heriotzak ezohiko bihurtzen dizkigu bestela axolagabe ahaztuko genituzkeen hainbat ekintza soil.

Hala, aurretik inoiz ez bezala, ohikoak ezohikotik duena jarri zidan aurrez aurre amaren faltak. Hitzean eta hortzean erabiltzen ditugu "*carpe diem*" eta antzeko topikoak, eta aldi berean, ia mespretxuz bizitzen dugu egunerokoa, saltxitxa bat erostea edo maite ditugun arnasa eta odolaren beroa inoiz ez desagertzera kondentatuta dauden gorabeherak balira bezala, dekretuz edo. Badakigu –hala diogu behintzat– salbuespenaren ondorio garena, probabilitate guztien aurka

## HAUXE BAI JENEROAI!



gaudela hemen, txiripaz; jokatu, ordea, bizien artean egotea normalena balitz bezala egiten dugu, heriok gure helbidea ezagutuko ez balu bezala; irautea lege bihurtzen du gure jarrerak, eta ez-izatea, salbuespen.

Baina eginahalak eginahal, iheslari trebeena ere atzetik harrapatzen du bizialdiaren epe-mugak, lehenago ez bada geroago. Pesimismora jota erantzun izan diote ebidentzia horri zenbait filosofok eta pentsalarik, amaierak bizitza honi zentzu guztia kentzen diolakoan, herio beti garaile ateratzen zaigulako, Bergmanen *Zazpigarren zigilua* filmean bezala. Eta ezin esan arrazoi apurren bat ez dutenik, fedegabeon ikuspegitik, bereziki. Nolanahi ere, behin bizirik egotearen loteria

tokatuta, aukeran ia hobe Violeta Parrarekin bidaia honen onura amaigabeei miresmenez abestea.

Salbuespenaren eta ezohikoaren alaba edo mendekoa izan zen gure ama ere, nahiz eta inoiz galduko ez genuela sinetsi nahirik bizi izan ginen, adinean eta ezinean aurrera eginagatik. Orain, zori onak doan emandakoa halabeharrak baimenik eta oniritzirik eskatu gabe bat-batean kendu digunean, gure egunerokoaren euskarri bat hil dela sentitzen dugu, hozkada baten bidez gure bizimoduaren funtsari atal bat kendu baliote bezala. Dena dela, pesimisten arrazoi ukaezinen aurka, haren hutsuneak sortu digun oinazeak ez du sekula gaindituko harekin egonda bizitzak oparitu ziguna. Inola ere ez. ■■■

## ERREMATEA



YOLANDA LARRAÑAGA

### Maite zaitut, ama

**M**iren Amurizari eta Maddalen Arzallusi Kursaalean entzun nienean *Asko maite zaitut ama* abestia, semtimenduen olatuak gainditu zuen errealitatea nire inguruko guztiongan. Abesti zoragarria, hainbeste eman eta hain gutxi eskatu diguten ama horie guztiei eskeinia; hamar umetik gora izan eta sekula kezarik izan ez zuen, umetan lo hartu ezinik ginenean albora etorri eta lasaitzen gintuen, gureztat beti irribarrea ezpainetan duen, orduak eta orduak lanean pasatu eta etxeratzean goxotasuna duen, triste egonda ere gurekin jolastu nahi duen, begietara begiratu eta zer dugun galdetzen digun eta merezi gabe ehunka purrustada jasotzen dituen ama horri eskainia.

Ez dakit zilbor hesteak lotutako kate hori inoiz mozten ote den, ezta amatasuna, batzuetan nahita eta beste batzuetan ia nahi gabean datorkiguna, guztiok merezi dugun ere. Ez da, noski, ama baten rolean dena polita eta argia; ez da unibertsitatean ikasi daitekeen zerbaite, bizitzan zehar ikasten dena baizik. Asko irakasten du ama batek, baina hark ere asko du ikasteko. Hala ere, ama guztiok merezi dute abesti bat, liburu bat edo hizki garbiz "maite zaitut" idatzirikoa papertxo bat. Guztiok dugu gure barnean maite dugun amatxo bat, Mirenek eta Maddalenek bezala. ■■■



# Eskutik helduta, inklusioa ipar

Gizarte inklusioa ez izatearen albo-kalteek lotzen dituzte Nora Aranbarri, Jare Jimenez eta Ursula Urteaga azkoitiarrak. Aniztasun funtzional desberdinak dituzte hirurek, eta oso bestelakoak dira horietako bakoitzaren historia eta bizipenak ere. Gaztetxo bakoitzaren kasua azaldu diote beren gurasoek Maxixatzeni. Testua: **Anartz Izagirre**. Argazkiak: **Ainhua Beristain**.

**G**arun paralisia, artritis idiopatikoa, paralisi brakiala, autismoa... Azken urteetan bailaran ezagunagoak bilakatu diren aniztasun funtzionalen izenak dira horiek, eta orain ozeano zabal bilakatu den Marea Urdina izan da, besteak beste, aniztasun funtzionala duten haurrei zein helduei bozgorailua eskaini dien elkarteak. 2018. urtean zipriztindu zituen marea horrek kaleak lehen ekintzarekin, autismoa gizarteratzeko xedez itsas zeharkaldia egin baitzuten Gipuzkoako kostaldean. Egitasmo hark izan zuen arrakastaz jabetu ostean, bestelako aniztasun funtzionalak zituzten haurren familien sare bat sortu zen Azkoitia-Azpeitian, eta egun, askotariko gaitzen sentsibilizazioa lortzeko lanetan dihardu Marea Urdinak, babes zabalarekin eta hasieran bezain besteko energiarekin.

Gorka Aranbarri (Azpeitia, 1973) da elkarte horretako zuzendaritza batzordeko kideetako bat, eta otsailaren hasieran egin zuten aurtengo batzar nagusia, urteko erronkak eta helburuak finkatzeko. Eskuartean duten momentuko proiektuetako bat, adibidez, *Tanta urdinak* izeneko ipuina da, ikastetxeetan inklusioa lantzeko sortua. Horrez gain, orain arte bezala, elkarlanean jarraituko dute herriko beste hainbat eragilerekin eta erakunderekin. Azkoitian, adibidez, Herrilab +700 prozesuan parte hartu dute, etorkizunean herria inklusioa izan dadin ekarpenak egiteko.

Aranbarrik dio "herritarrak sentsibilizatzea" dela elkarteak hastapenetatik duen xedea: "Guk eskatzen duguna da inklusioa



bizitzako esparru guztietara zabaltzea: ikastetxeetara, lanera, kirolera... Marea Urdinaren ekintzen bitartez zer pentsatua ematen diogu jendeari, eta hori da gure lorpenik handiena". Eskualdean "jende askoren babesa" dutela nabarmendu du azpeitiarrak, eta horren erakusle da azken hiruzpalau urteetan herrian nahiz herritik kanpo lortu dituzten atxikimenduak eta askotariko proiektuak.

#### **Marearen benetako tantak**

Dozenaka dira muga fisikoak nahiz bestelakoak medio eguneroko bizitza egiteko oztopoak dituzten azkoitiarrak, beren bidean egunak joan eta egunak etorri harri txintxorak aurkitzen dituztenak. Horietakoa hiru herritar dira Nora Aranbarri (Azkoitia, 2007), Jare Jimenez (Azkoitia, 2010) eta Ursula Urteaga (Azkoitia, 2009). Hiru neskatoak ez ditu gaitz berak lotzen, baina zenbait unetan leku eta une berean egin dute behaztopa, inklusio ezaren ondorioak jasan baitituzte, besteak beste, ikastetxean, kalean zein aisialdiko hainbat jardueratan.

Rakel Beristain, Nora Aranbarri eta Gorka Aranbarri.

Rakel Beristain (Azkoitia, 1974) eta Gorka Aranbarri dira Noraren gurasoak; paralisi brakial obstetrikoa du Norak erditzetik, eta medikuak eragindako lesio baten ondorioz beso bat mugikortasunik gabe gelditu zitzaion. Zortzi ebakuntza egin dizkiote jaio zenetik, horietako batzuk Parisen eta besteak Bartzelonan; denak, osasungintza publikotik kanpo. Ondo gogoan dute une hura haren gurasoek. Hala dio Aranbarrik: "Noraren erditzea oso gogorra izan zen; saiheutsak apurtu zizkioten, eta birrikak zulatu. ZIUn egon behar izan zuen. Paralisi brakiala duten haur batzuk behatz bat mugitu ezinda gelditzen dira, edo eskua, ukalondoa... Noraren kasuan, ordea, beso osoa zen". Negligentzia baten ondorio izan zen Noraren lesioa: "Ginekologoak gaizki egin zuen bere lana, eta horregatik du Norak duen lesioa. Esan zidaten sei hilabetera-edo pasatuko zitzaioela, baina ez zen hala izan. Berez izen oneko ginekologoa zen, baina egunak zeramatzan lanean, eta ez zuen Noraren informea irakurri. Esan ziguten informea irakurri izan balu, zesarea egin ahalko zutela, baina ez zen hala izan".

Ikusitakoa ikusita, Osakidetzatik kanpo espezialistarengana jo zuten Noraren gurasoek, eta ebakuntza egin zitekeela esan zieten: "Osakidetzan esan genuen Parisera joateko asmoa genuela, eta esan zidaten ez nengoela burutik ondo; psikologo bat behar nuela. Handik urte batzuetara hala esan zidan medikuak: 'eskerrak ez zenidaten kasurik egin'. Norak bi hanketako nerbioak kenduta eta besoan jarrita ditu; hori izan zen oinarrizko ebakuntza, eta hortik aurrera egin dizkioten operazio guztiak besoari funtzionaltasun gehiago emateko izan dira.

Justiziara ere jo dute Noraren kasua salatzeko, baita horrekin arazoak izan ere. "Salaketa jarri genuen Osakidetzaren kontra, eta Zumarragara joan ginen horretarako informeak eskatzera; paper guztiak desagertu egin ziren, eta esan zidaten han ez nuela umerik eduki". Kontuak kontu, lortu zuten Nora Zumarragako ospitalean jaio zela frogatzea. Hala dio Beristainek: "Nora jaio zenean nik ez nuen ikusi ere egin. Gorkak ikusi zuen Donostiako ospitalera eramateko kaxa batean sartu zutela; 20:00etan jaio zen, eta 05:00ak arte ez genuen jakin bizirik ala hilda zegoen. Hurrengo egunean Donostiara lekualdaketa eskatu nuen, Norarekin egon nahi nuelako, eta ginekologoak informe bat egin zidan, eskuz. Ez dakit zergatik, baina ospitalean nahi gabe kopia entregatu nuen, eta originala nik gorde. Eskerrak horri". Hamar urteren ondoren, epaiketa irabazi zuen Aranbarri-Beristain familiak.

### **Apurka-apurka, hobetzen**

Paralisia du Ursula Urteagak ere, baina kasu honetan, garunekoa. Oso bestelakoak dira Noraren eta Ursularen kasuak, baina biek jaiotzetik dute gaitza. Hala dio haren ama Inma Urteagak (Azkoitia, 1969): "Haurdunaldia ondo joan zen, baina titian jarri nuen haurra, eta handik pixkatera, bat-bateko heriotza heldu zen. Emagina handik zebilen, eta galdetu zidan ea zer moduz geunden. Esan nion apur bat geldirik ikusten nuela Ursula, eta handik berehala eraman zuten erreanimaziora". Bihotza ez zitzaion gelditu haurrari, baina bai arnasketa. Urteagak dio "lesio txiki bat" duela Ursulak garunean, baina organo horretako oinarri-oinarrizko eremu batean: "Gero eta



kontrol gehiago du orain alabak, baina mugimendu automatiko guztiak galdu egin zituen. Oso mugatuta du guztia, baina kognitiboki bera ondo dago, inguruarekin konektatuta; irakurtzen ere badaki, 4-5 urterekin ikasi zuen horretan".

Osasun aldetik Ursula ondo dagoela dio Urteagak: "Handik atera ginenetik, gu ez gara berriro ospitale batera joan". Errehabilitazioko terapiak egiten ditu, eta horiekin gorputzaren kontrola bereganatzen ari da haurra. Krisi epileptikoak ere izan ohi ditu, baina 2017tik ez du halakorik izan: "5 urterekin izan zituen lehen eraso epileptikoak, lauzpabost minutukoak, baina oso gutxi izaten ditu orain". Ondo gogoan du Urteagak Donostian ZIUetako hiru ginekologok haurra oso gaizki zegoela esan zioteneko: "Umea oso gaizki zegoela esan zidaten, baina nik beti izan dut Ursula terapien bitartez asko hobetuko zen esperantza. Lehen urteetan Aspacera eramaten nuen astean bi egunez, gero musika eskolara ere bai. Lagunek esaten zidaten: 'Zenbat aurreratu duen!'. Aspacen egiten zituen egunak gutxitxo ziren, ordea, eta Soraluzekeo terapeuta batengana eramaten hasi nintzen. Hari esker ikasi nuen zer egitea zegoen, eta horrela atera dugu aurrera Ursula. Nik sinetsi egin dut egin izan dudana horretan".

### **Ikusmena jomugan**

Jare Jimenez da hiruretatik gaitzik desberdinena duen haurra. Gazteen artritis idiopatikoa du hark, eta besteei ez bezala, jaiio baino beranduago atzeman zioten patologia hori. Hala dio Erika Reyes (Azpeitia, 1981) bere amak: "Hasieran pentsatzen genuen zaintiratu bat izango zuela, txorkatila handituta baitzuen hamabost hilabete

Inma Urteaga eta Ursula Urteaga.

**"BAKOITZAK BERE  
ARAZOAK KONTATZEN  
DITU, ETA ERDIA EZ  
DUZU ULERTZEN, BAINA  
BAI BARRUAN DUTENA"**

**"ZERBAITEK  
GURETZAKO BALIO  
BADU, DENONTZAKO  
BALIO DUEN SEINALE.  
HORIXE DA INKLUSIOA"**

zituenean, eta handik urtebetera eman ziguten diagnostikoa; ordurako bost artikulazio hartuta zituen". Umeetan probatutako tratamendu guztiak pasatu ditu, baina ez diote funtzionatzen; halere, "bizimodu normala" egin dezakeela dio Reyesek: "Dantza egitea asko gustatzen zaio, eta dantzetan ibiltzen da, korrika egin dezake...". Txanponaren beste aldean, ordea, orain duen gaixotasuna dago: "Artritisak eragindako uveitis broteak sendatzeko, botika batzuek begietako presioa igotzen diote; horrek glaukoma eragin dio, eta horregatik egin dizkiote azkeneko bi ebakuntzak. Begietan inplanteak jarri dizkiote presioa jaisteko, ikusmen nerbioa ikututa duelako, eta ondorioz, ikusmena galtzen ari delako".

Reyesek dio bere horretan "zorrea" izan dutela, espezialista onak egokitu zaizkielako ospitaleetan. "Zumarragako ospitalean izan genuen pediatria batek esan zigun Gurutzetako ospitalera joan behar genuela, eta ez Donostiara. Arazoak izan genituen, baina tematu egin ginen, eta Gurutzetara joaten gara orain. Sekulako taldea dago han". Inguruan oso kasu ezaguna da Jarerena, bitxia baita: "Hain kasu berezia eta zaila izaten ari delako, ospitale askotan ezagutzen dute Jareren kasua". Gaixotasun autoimmunea da artritis idiopatikoa, eta tratamendua immunodepresorea denez, sistema immuneari asko eragiten dio; haren artikulazioek hobera egin dute, baina ikusmena okertu egin zaio: "Momentu honetan, %60-70ean du ikusmena".

#### **Dolua pasatu beharra**

Gaitz askoren onarpena ez da samurra izaten sarritan, eta gurasoek urteak zein tratamendu terapeutikoak behar izan dituzte aurrera egiteko. "Ursula abenduaren 29an jaio zen, eta urtarrilaren 10ean esan zidaten garun paralisia zuela. Gogoratzen naiz neuropediatrak esan zidala: 'A ze alaba tokatu zaizun'. Terapia asko egin behar izan ditut urte hauetan dena gainditzeko, eta oso aberasgarriak izan dira guztiak", dio Urteagak. Noraren amari ere kostatu egin zitzaion onarpena: "Urteetan kostatu egin zitzaidan gertatutakoa onartzea. Goizetan, Nora eskolara joateko esnatzera joaten nintzenean, bere besora joaten zen nire begirada; obsesionatuta nengoen. Amorrua ematen zidan umea ondo zetorrela jakin eta medikua haren egoeraren erantzule zela jakiteak". Ildo horretatik, datu bat eman du Urteagak: "Garun paralisiaren elkarreterara joaten zara eta haur gehienak abuztuan eta abenduan jaiotakoak dira, opor egunetan. Atera kontuak. Denok ordaintzen ditugu Osakidetzako aldaketak eta langile talde ezegonkorak, eta ez gara konturatzen". Jareren familiari ere kostatu zitzaion onarpen prozesua. Hala dio Reyesek: "Ez da erraza izaten. Oraindik ere ospitalera joan behar dugun aurreko asteetan lorik ezin eginda ibiltzen naiz".

Hala eta guztiz, Reyesek dio asko balio izan diela beste kasu batzuen berri izateak: "Bakoitzak bere motxila darama, eta motxila horretan bere harriak. Kontziente gara bakoitzak bere gaitza duela, baina besteen kasuen berri izateak enpatizatzeke balio dizu". Bat dator Urteaga: "Bizipen desberdinak ditugun arren, kale beretik goaz. Eta Marea Urdinak bozgorailua eman digu, Azkoitia-Azpeitian jendeak entzun nahi duena esateko". Ildo beretik, elkar ulertzen direla dio Aranbarrik: "Beti gauza beraz hitz egiten amaitzen dugu azkenean.



Bakoitzak bere arazoak kontatzen ditu, eta erdia ez dugu ulertzen, baina bai barruan dutena eta zer esan nahi duten; ulertzen dituzu bakoitzaren beldurrak eta negar egiteko gogoia".

### **Gizarte inklusioa urrun**

Sentsibilizazioa ez ezik, gizarte inklusioa lortzea du helburu Marea Urdinak. Azken urteetan aurrerapausoak eman direla nabarmendu duten arren, hiru familiek argi dute oraindik asko falta dela horretarako. Hezkuntzan dauden oztopoez ondo jabetuta daude, esaterako. "Ursularen kasuan, HHn konturatu nintzen eskailerak zein kriminalak ziren, eta Bigarren Hezkuntzako eraikin berrian ere gauza bera gertatzen da. Hori onartezina da. Irisigarritasunari dagokionez, gauza bera gertatzen da beste eraikin denetan". Hezkuntzan egin du azpimarra Reyesek ere: "Hezkuntzan arreta ez dago indibidualizatuta, eta haur denak zaku berean sartzen dituzte. Denei ezartzen zaizkien arau orokor batzuk daude, eta horietan sartzen ez bazara, hor konpon".

Aranbarrik festak ere ekarri ditu gogora: "Denok gara herritarrak, eta egon ziur denok ezin izango dugula gauza beretan parte hartu, baina festak, adibidez, denontzat direla esaten da, eta ez da hala". Ildo horretatik, argi du azpeitiarrak Marea Urdinak zer eskatzen duen: "Haur guztiak aukera izan behar dute bizitza osotasunean bizitzeko. Dena ezingo dute besteek bezala egin, baina egokitzen egin ahal dira; adibidez, zinera joan eta norbaitek ez badu entzuten, azpigituluak jarri beharko dira. Ez dugu inoiz ahaztu behar edonork izan dezakeela zerbait edonoiz".

Elkartea gauza asko lortzen ari dela diote familiek, baina azaldu dute gogorra dela prozesu hori ere. Hala dio Urteagak: "Lau orriko kexak idazten ditut nik, eta askotan ez duzu ezer ere lortzen. Nazkatu egiten zara beti eskean, bestelako entretenimenduak ere baditugu eta". Beristainek sentsibilizazioari eman dio garrantzia: "Niretzako garrantzitsua da jendeak Norak zer duen jakitea. Bere gelakoek badakite, baina zaharragoek edo gazteagoek, ez". Informazio falta salatu du, bere aldetik, Reyesek: "Jarek 7-8 urte zituenean jakin genuen arreta goiztiarreko laguntzak eska genitzaizkeela, ordura arte ez genekien ezer, eta dena geure kabuz egin genuen. Informazio falta ikaragarria dagoela iruditzen zait". Funtsean, gizartea herritar denegana egokitzea da aniztasun funtzionala duten haurren familiek eskatzen dutena, hori baita inklusioaren oinarria. Halaxe borobildu du hitzartzea Urteagak, lerroburu batez: "Zerbaitek guretzako balio badu, denontzako balio duen seinale. Horixe da inklusioa". ■■■■



Jare Jimenez eta Erika Reyes.

# Umezurtz birtualak



IORITZ GONZALEZ

**G**aur, bizitza egokitu zaigun errealitate edo mundu digitalari buruz ariko natzaizue; egunerokotasunean gutako askori saihestea hain zaila egiten zaigun errealitatea, bereziki, gazteenei. Azken horiek darabiltzaten hitz batzuk ezagunak egingo zaizkigu segur aski, hala nola Blogger, cyberbullying, Instagram, like, follower, tweet, hater eta match. Baina hausnartu al dugu zer eragin izan dezakeen errealitate horrek gazteengan? Egin al dugu gogoetarik izan ditzakeen ondorioei edota arriskuei buruz?

Belaunaldien arteko arrakala deiturikoa jada errealitate bat omen. Pentsatu une batez: Internetek ez ote ditu hesi fisikoak hautsi? Geure logelan, gailuari so gaudela, babesean gaudela pentsatu ohi dugu. Baina, agian, bakarrik ez gaudela pentsa genezake; eta, akaso, oraindik kostatu egiten zaigu errealitate hori onartzea.

Gazte bat, afalondoren, bere gelan sartu eta ordenagailuarekin edo mugikorrarekin Internetera konektatzen da, bakarrik, logelako babesean. Mundu ezezagun batean dabil nabigatzen, interes eta trikimailu ezberdinez josiriko errealitate batean, desinhibiturik; maiz, heziketa handirik jaso izan gabe. Esango nuke, askotan, geuk helduok ere nabigatzean segurtasun falta sumatu izan dugula, ziria sartuko ote diguten beldurrez; *online* erosketak egitean, esaterako. Ez ote dute beraiek arrisku bera edo gehiago izango?

Bizitza erreala deitzen diogunarekin alderatuko bagenu, pentsa zenbat aholku jaso izan ditugun gaztetan, etxetik irten eta kalean bakarrik 'nabigatu' aurretik; gertukoengandik hainbat urtetako heziketa jaso ondoren lortu izan dugu heldu gabe irteteko baimena. Agian, hainbat aholkuren artean ezagunenetako bat hurrengo izan daiteke: "Ezezagunez ez fidatu". Pentsa une batez Interneten gabiltzanean zenbat ezezagun aurki ditzakegun.

Askotan entzun izan dut: "Gure umeak badaki mugikorra erabiltzen, bakarrik ederki moldatzen da. Izatekotan, neuk galdetu beharko nioke berari nola erabili". Beharbada, gazteak jaio direnetik ohituak daude gailu horiek egunero erabiltzen, ados. Hala ere (agian neure pertzepzioa izan daiteke), nik uste gaiari ez diogula oraindik duen benetako garrantzia ematen. Gazte gehienek ordu asko eskaintzen dizkiete gailu horiei, maiz heziketarik edota aholkurik jaso gabe. Jada, mundu digitalean egin dezakegunak bizitza errealean ondorioak eragin ditzakeela esango nuke. Itsaso zabal horretan nabigatzeko behar dituzten baliabideak, geuk, helduok, erraztu behar dizkiegulakoan nago. Ardiaren erruak bildotsak ordaindu ohi dituela esan ohi da. Ez al da geure egitekoa, beraz, beharko dituzten gaitasunak garatzeko baliabideak eskaintzea? Ez ote daude umezurtz, bizitzan ezinbesteko duten eremu batean?

Urak bidea eginen duela esan ohi da; eta gazteek ere eginen dute, ezbairik gabe, baina latsa nondik bideratu da kontua. Ez genuke ahaztu beharko, gaurko irakatsiek argituko dizkietela biharko bideak. ■■■

**GAZTE GEHIENEK ORDU ASKO ESKAINTZEN DIZKIETE GAILUEI, MAIZ HEZIKETARIK ETA AHOLKURIK JASO GABE**

Erronka berriei  
aurre egiteko,  
aldatu beharra dago.

Iritsi da **TicketBAI.**

Enpresek aurrera egiten dutenean,  
Gipuzkoak aurrera egiten du.



**TicketBAI**  
GIPUZKOAN

[gipuzkoa.eus/ticketbai](http://gipuzkoa.eus/ticketbai)



**JARRI HEMEN  
ZURE IRAGARKIA!**

# "Aurrez zer izango den ez dakidan zerbait sortzea gustatzen zait"

## INTZA ARAKISTAIN ARTISTA

Artearen munduan murgilduta bizi da Intza Arakistain azkoitiarra. Gazteak diziplina ugari jorratzen ditu umea zenetik, hala nola marrazkia, margoa eta musika. Sorkuntza prozesuan ahalik eta askatasun gehien ematen dio bere buruari, eta etorkizunean bide berriak irekitzen eta artistikoki garatzen jarraitzeko asmoa du.

Testua: **Ane Olaizola**. Argazkiak: **Intza Arakistain**.

**A**rte Ederretan graduatua eta margoan espezializatua, musikaren eta margolanen artean bizi da Intza Arakistain (Azkoitia, 1997) artista. Marrazkiak eginez hasi zen sorkuntza lanetan, eta unibertsitate garaian egin zuen margolanetara salto:

"Unibertsitatea deskubrimendu bat izan zen margoari zegokionez". Horrez gain, bateria jotzen du Nize taldean, eta tatuajeak egiten ditu noizbehinka. Egun, Bilbon bizi da azkoitiarra, eta hiriburu horretan arnasten den "giro artistikoa" nabarmendu du.

### **Noiz sortu zitzaizun artearekiko eta sormenerako sena?**

Artearen inguruan hitz egiten hasten garenean, sena unibertsitatean garatu dudala uste dut, han artearekiko sentsibilitatea erakutsi didatelako. Egia da aurrez ere marrazten nuela, baina ez zegoen propio horretara bideratuta; gehiago ziren ilustrazioak. Pintura lantzen unibertsitatean hasi nintzen.

**Artearen barruan diziplina ugari lantzen dituzu: musika, marrazketa, pintura... Ume zinenean hasi al zinen esparru horiek jorratzen?**

Umetan guztiok marrazten eta margotzen dugu. Kontua da nik gerora ez niola utzi marrazteari. Beti gustatu izan zaidan gauza bat da marraztea, eta horretan jarraitu nuen gerora ere; asko gozatu dut. Musikari dagokionez, berriz, gogo handia nuen bateria jotzen hasteko. Gurasoei txapa handia eman nien bateria jo nahi nuelako, eta DBHn nengoenean, tresna hori praktikatzen hasi nintzen musika eskolan.

### **Unibertsitatean ikasten zenbiltzanean hasi zinen margotzen. Esana duzu marrazkiak eman ezin zizkizun gauzak ematen dizkizula margoak.**

Azken finean, margoan zuk zeuk sortzen dituzu erabili behar dizuzun tresnak: koadroan egongo diren kolore guztiak, kromatismo osoa... Eta margotzeko moduak ere oso bestelakoak dira; izan ere, material asko sar ditzakezu geruza bakar batean. Bestalde, marrazkiek zein margolanek beren erreminta propioak eskaintzen dituzte sormenerako, eta ni saiatzen naiz bi gauzak erabiltzen.

### **Hau da, koadro batean margoa zein marrazkiak uztartzen dituzu.**

Bai. Margotzeko modu asko daude, eta ni saiatzen naiz obretan marrazkiak sartzen. Espraia ere



erabiltzen dut hainbat koadrotan. Gauza bakoitzak bere izaera du, eta horiek konbinatzea interesgarria izan daiteke.

### **Nolako margolanak egiten dituzula esango zenuke? Estilo jakin bat al duzu?**

Lan bat estilo jakin baten barruan sartzea zerbait konplikatu iruditzen zait. Esango nuke nire margolanak dezenteko puntazorrotzak, tiranteak eta kirrinkariak direla. Baina nire burua ez dut kokatzen estilo jakin batean. Era berean, egia da, gaur egun Bilbon dagoen giro artistikotik guztiok jaten dugula, eta jasotako hori beste zerbaitetan bilakatzen dela gero. Baina ez nintzateke sartuko multzo jakin batean.

### **Sortze prozesuan zenbaterainoko askatasuna ematen diozu zure buruari?**

Saiatzen naiz nire buruari ahalik eta askatasun gehiena ematen, emaitzak, modu batera edo bestera, ezusteko bat eragin diezadan. Beti berdina baino, gauza berriak egitea gustatzen zait. Dena den, nire margolanek beti izango dute neure egiten dituen zerbait; antzeman egingo da nik sortua dela, baina polita da ez igartzea ere.

### **Materialak berrerabiltzen dituzu lanak egiterakoan.**

Askotan edukiontzietatik hartzen dut materiala: egurra, kristala, pintura poteak... Gauza asko egoten da zabor ontzian. Material bakoitzak, gainera, aukera desberdinak ematen ditu: beira zati baten margotuz gero, bi aldeetatik ikusiko da, eta margoa oso irristakorra da material horretan; espraia, berriz, beiran itsatsita geratzen da, baina beste material batean beharbada ez. Egurra, berriz, marratu egin dezakezu. Bakoitzak bere ezaugarriak ditu.

### **Esperimentatzea gustatzen al zaizu?**

Bai. Zerbait nire eskuetara iritsi bada, topatu egin dudalako da. Horrekin zer egin dezakeedan pentsatzea gustatzen zait.

### **Non aurkitzen duzu inspirazioa?**

Une hauetan, inguruan ditudan pertsonengan inspiratzen naiz. Bilbon panorama astistiko indartsua dago, eta horrek asko laguntzen dit inspirazioa aurkitzen. Instagramen, berriz, artista ugari jarraitzen ditut, eta irudi asko kontsumitzen dut modu horretan ere.

### **Bilbon gaur egun giro artistiko indartsua dagoela diozu. Zer ari da egosten hiri horretan?**

Jende interesgarri asko dago, eta antzeman egiten da non ikasi duten. Gainera, elkar kutsatzen gara.

### **Bilbo duzu bizileku. Zer eskaintzen die hiri horrek zu bezalako artista gazteei?**

Dezente galeria eta erakusketa gune daude, eta inaugurazio asko egoten dira. Euskal Herrian arlo horretan dagoen leku indartsuena Bilbo dela iruditzen zait.

### **Margotzeko estudio bat duzu han, hainbat lagunekin batera. Ohikoa al da gazteen artean estudioa partekatzea?**

Masterra egiten ari garen lau lagunek estudio bat hartu dugu, eta han margotzen dugu. Orain, ordea, beste estudio batera lekualdatuko naiz, eta han bospasei lagun ariko gara. Egia esan, estudioa modu horretan duten pertsona dezente ezagutzen ditut; Arte Ederren ikasketak amaitu dituzten eta margoaren munduan jarraitu nahi dutenen artean nahikoa ohikoa da hori.

### **Estudio bat modu kolektiboan izateak eragiten al du norberaren margotzeko moduan?**

Bai, lehen esan bezala, guztiok elkar kutsatzen gara. Esaterako, ondokoak zerbait probatzen badu eta gustatu egiten bazaizu, zuk ere horixe probatzen amaitzen duzu. Estudioan besteen lana ere ari gara ikusten, eta horrek modu batera edo bestera norberaren margoan eragin egiten du.

### **Margo erakusketak ere egin dituzu azken urteetan.**

### **Jendearen zer erantzun jaso duzu?**

Arte Ederren ikasketak amaitu ondoren, margoari buruzko masterra egin nuen, eta ikasketa horiek egiten ari nintzen bitartean, erakusketa kolektibo asko sortu genituen. Lagun batekin gauzatu nuen erakusketa izan zen adierazgarriena, eta jendearen erantzuna oso positiboa izan zen. Egia da lehen aipatutako giro artistiko horren bueltan dabiltzanek errazago egiten dutela errekonozimendua; beharbada, mundu horretan ibiltzen ez den beste pertsona bati gehiago kostatzen zaio ulertzea.

### **Margotzen hasi zinenetik, zure sorkuntzek bilakaera izan dutela esango al zenuke?**

Izan dute bilakaera mota bat, eta bilakaera hori une oro egongo da; ez du bukaerarik. Lanak beti joaten dira bilakatzen.

### **Zer da margolanak sortzerakoan gehien interesatzen zaizuna?**

Aurrez zer izango den ez dakidan zerbait sortzea gustatzen zait. Aldez aurretik pentsatutako ideia bat baldin badut, edo ez izanda ere, horrek zer-nolako gorputza hartzen duen ikustea interesatzen zait; izan ere, emaitza inoiz ez da izango aurrez pentsatu duzun bezalakoa. Zure desiren manifestazio bat izan daiteke.

### **Margoari dagokionez, zure lekua topatu duzula uste al duzu?**



Nize taldeko bateria-jolea da azkoitiarra. INTZA ARAKISTAIN

**"BILBON PANORAMA ARTISTIKO INDARTSUA DAGO; HORREK ASKO LAGUNTZEN DIT INSPIRATZEN"**

**"BETI DAGO MARGOTZEKO ETA DESKUBRITZEKO ZERBAIT. ALDATZEN ARI DEN IBILBIDEA DA HORI"**

**"HARTZ-EN HASI NINTZEN BESTE BATEKIN BATERIA JOTZEN; OSO NUTRITIBOA IZAN ZEN NIRETZAT"**

Oso tristea litzateke hori. Beti dago margotzeko eta deskubritzen jarraitzeko zerbait. Bizitza bera bezala, aldatzen ari den ibilbide bat da jardun hori ere.

**Duela hainbat urtetatik, musikan ere bazabiltza, bateria jotzen. 2016an Hartz taldea sortu zenuen Beñat Rodriguezekin batera, eta ondoren, Asier Etxeberria batu zen taldera. Disko bat ere argitaratu zenuten. Garai hartako zer oroitzapen dituzu?**

Beste musikari batekin bateria jotzen nuen lehenengo aldia izan zen hura, eta oso nutritiboa izan zen niretzat. Garai hartan, musika eskolan oso gutxi ari nintzen ikasten: denbora gutxi nuen, oso klasikoa zen... Eta pertsona batekin musika jotzen hastean, neu ere sortzen hasi nintzen; asko erakutsi zidan horrek.

**Egun, Nize musika taldean aritzen zara bateria-jole gisa. Nola definituko zenuke talde hori?**

Rock albertatiboa egiten dugu, eta melodia ilunak lantzen ditugu. Halako zerbait dugu jarrita gure biografian [barreak]. Hori ere zaila izaten da definitzea.

**Zer-nolako ibilbidea egiten ari da taldea?**

Duela hiru urte sortu genuen, eta abestiak egiten hasi ginen. Aurreneko kontzertua Leire Lakuntza artista bilbotarraren erakusketa batean jo genuen. Iaz disko bat kaleratu genuen, *Ezin* izenpean – Nize, alderantziz-. Orain, berriz, EP bat grabatu dugu, eta bideoklipa egiten eta azala diseinatzen ari gara. Oraingoz, proiektu hori dugu esku artean.

**Nola ikusten duzu musika panorama?**

Margoan gertatzen den bezala, musika sortzen duten talde asko daude Bilbon: Belako, Toc, Vulk, Senda... Indartsu dago panorama.

**Egun, tatuajeak egiten ere aritzen zara. Nolatan hasi zinen horretan?**

Marraztea gustatzen zaidanez, irudiak beste pertsona baten azalean egiten ditut, eta finean, diru pixka bat lortzeko modua ere bada. Duela bi urte inguru hasi nintzen tatuajeak egiten, baina oso modu lasaian egiten ditut; noizbehinka. Ez nago tatuajeen munduan erabat sartuta. Presarik gabe nabil, ez dut oso agenda estua, egia esan. Denbora librea daukadanean eta inork tatuajeren bat nahi duenean, egin egiten diot, eta listo.

**Etorkizunean, zertan eta non ikusten duzu zure burua?**

Espero dut margotzeko estudio bat edukitzea eta horretarako denbora izatea. Nahiko nuke, era berean, artearen munduan bide berriak irekitzen jarraitzea. ■■■■



**KATTAGORRI ARTEA**

TALLER ARTISTIKOAK

GOZ ETX ARATZAI DEZ: gaste eta irakurketa

kattagorriarte@gmail.com

674335988

Zuatzola kalea, 7. Azkoitia

**ZERBER**

**BURDINDEGIA**

BEHAR DUZUNERAKO ALOR GUZTITAKO GAIAK AURKITUKO DITUZU GURE BURDINDIAN: INDUSTRIA, ELEKTROSTATUA, MARGOLARITZA, ETXEA, ITURGINTZA, BIKOLAJEA ETA ABARREKO TRESNERIA, HALA NOLA, TORLOJUAK, ERRODAMENDUAK, SARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

**ZERBERREN**

**"ZER BER ETA HURAXE"**

NAGUSIA, 3B - 20720 AZKOITIA - 038 35 01 25

[www.ferreteriazerber.com](http://www.ferreteriazerber.com)



**JARRI HEMEN ZURE IRAGARKIA!**

# Non dago Zakelmari?




Otsaileko Maxixatzen aldizkarian Zakelmari non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 34. orrialdean zegoen ezkutatuta. Lehiaketan parte hartu duten Maxixatzeneko bazkideen artean zozketa egin ondoren, irabazlea Maite Azpiroz bazkidea izan da, eta Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta irabazi du. Datorren hilean, Herrixen elkartearen 50 euroko txeketa zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna martxoaren 21a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo [erredakzioa@maxixatzen.eus](mailto:erredakzioa@maxixatzen.eus) helbide elektronikora.




**ANBULATORIOAREN ONDOAN**

**KAFETEGI HANDIA DUGU:** urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolatea txurroekin eta terraza zabala.

**ESKAINITZA ZABALA:** ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSORO AUZUNEA, 5 behea • 20720 AZKOITIA • tel. 943-08 34 54

FACEBOOKa OGI BERRI AZKOITIA GOXO GOXO





# GUKA



**MEMORIA,  
DUINTASUNA,  
ERREPARAZIOA**



**Euskararen plaza gara,**  
herriaren irudia eta  
komunitatearen ahotsa



**HEDABIDEKIN  
ERE BAI**

# HITZAK BAINO GEHIAGO



**JUAN LUIS ROMATET**

Herri bedeinkatu edo madarikatu honetako familia askok bezala –bakoitzak erabaki dezala nola kategorizatu ditxosozko herri hau–, gure sendiak ere sufritu behar izan ditu 1936ko gerraren ondorioak: aitona bat, amaren aita, gudarria izan zen; aitaren ama, gure amama, alabak eskutik hartuta zituela kanporatu zuten herritik 1937ko otsailean, orduko agintariak Zumaiako ehunka lagun haien jaioterritik, haien etxetik, haien familiartetik aldentzea erabaki zutelako; eta beste aitona, aldiz, burdinbidean egiten zuen lan, eta hura ere errepresaliatu egin zuten frankistek. Ai, zer den gerrako galtzaileen bandoan egotea.

Guda hark gure familian izandako eraginaz gutxi hitz egin dugu etxean. Amak oso noizean behin aipatzen zuen bere aitak gerran borroka egin zuela. Amamak eta izebek pasatu behar izan zuten gurutze bidearen inguruko informazio gehiago izan genuen kanporatzeen 80. urteurrenarekin

batera Zumaian egindako omenaldiari esker. Urtebete lehenago, 2016an, trenbideetako langileak omendu zituen Gipuzkoako Aldundiak, eta une hartan jakin genuen –nire kasuan, behintzat, hala izan zen– frankisten garbiketa prozesua jasan zuela gure aitona, beste ehundik gora langilerekin batera. Frankismoaren zorigaiztoko aro ilun, krudel eta odoltsuan izan ziren sarraskiekin eta tragediekin alderatuta, txikikeria izango da gure familiarik gerla hartan pasatutakoa.

Beste etxe batzuetan, garai beltz hartan bizitako gertaerek sortzen zieten minagatik, beldurragatik edo beste arrazoi batzuegatik mantendu dituzte isilik, barrenean gordeta, azaleratu gabe. Sendatzen ez diren zauriek gangrenatzeko arriskua dute, eta halako dezentente gertatuko ziren. Zenbat gizon eta emakume zenduko ziren beren gurasoen nondik norakoak jakin gabe? Zenbatek jasan behar izango zuten irabazle krudelkeria 'okerreko aldean' borrokatu zutelako? Zer pentsatuko ote dute gerran desagertutako gudarien, mili-

zianoen edo soldaduen seme-alabek, politikariren bat, ustez ironikoki, "hemen datoz aitona kontuekin" bat esaten entzuten dutenean? Erreparazio eskaera horiekin "zauriak zabaltzera" datozela irakurtzean, zer pasatuko ote da hobi komun batean lurperatuta dagoen pertsona baten bilobaren burutik? Zer Espainiako Gobernuko presidente batek, harro-harro, memoria historikorako ez duela sosik bideratuko dioenean? Zer diktadorearen jarraitzaileak berriro parlamentuetan ikusten dituztenean, gainera, aginte postuetatik gero eta hurbilago?

Memoriarik gabe ez dago herririk, eta, zorionez, herriaren eta herria osatzen duten guztien memoria berreskuratzeko lan asko egin da azken hamarkadetan. Zer gertatu zen jakin behar dugulako. Asko zendu dira dagoeneko, baina haien oinordekoak hor daude oraindik, eta erantzun eske jarraitzen dute; erreparazioa zor zaie. Horregatik bakarrik lanean jarraitu behar da. Memoria eta duintasuna ez direlako hitz hutsalak. ■

**Argitaratzailea:** Urolako Komunikazio Taldea

**Zuzendaria:** Onintza Lete Arrieta

**Tirada:** 7.750 ale



**Enpresa laguntzaileak:**



**DANOBATGROUP**



# AITONARI ATSEDENA EMATEKO BORROKA

**1936ko gerrak eragindako zauri batzuk sendatu gabe jarraitzen dute guda amaitu eta zortzi hamarkada geroago. Gerlan desagertutakoen kasua da horietako bat. Oraindik ere errepide bazterretan, izenik gabeko hobietan, edota bere burua goraiatzeko Franco diktadoreak eraikiarazi zuen Erorien Haranean daude gerra hartan parte hartu zuten askoren gorpuzkiak. Haien hezurak, haien memoria, berreskuratzeko prozesua abiatu dute familia batzuek.**

Testua: **Juan Luis Romatet**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta utzitakoak**

Espainiako Gerran borrokatu, eta atxilotu ondoren desagerrarazi zuten pertsonetako bat da Martin Hilario Intxaurre, besteak beste, Fermin eta Pilar Larrañaga Intxaurre anai-arreben aitona. Urte hauetan guztietan etxean sumatutako hutsuneak eta arnastutako saminak bultzatuta, aitona nondik norakoak ikertzen hasi ziren. Hamarkada luze batean aritu dira artxibategiak arakatzen, mila eta bat instantzia bidaltzen; kontaezinak dira egindako telefono deiak, autoz egindako kilometroak eta aitona berreskuratzeko asmoz egindako gestioak. Denborarekin, esfortzuekin, jakin dute non dagoen beren aitona. Haren gorpuzkiak berreskuratzea da eman nahi duten hurrengo pausoa.

Martin Hilario Intxaurre Danborenea 1896ko urtarrilaren 14an jaio zen Berastegiko (Gipuzkoa) Arbide baserrian. Dokumentuen arabera, zazpi anai-arreba ziren etxean; bost mutil eta bi neska. Landa eremuan ohikoa denez, are gehiago garai hartan, maiorazkoa gelditu zen baserriarekin, eta beste anai-arrebek kanpora joan behar izan zuten.

Baserri giroa utzi eta itsasertzera gerturatu zen Intxaurre, Pasaia (Gipuzkoa) hain zuzen ere. Jarduera ekonomiko sendoarekin borborka zegoen herria aurkitu zuen hark Pasaian. Izan ere, arrantza sektore indartsua izateaz gain, lurraldean ekoizten ziren produktuak hango portutik eramaten zituzten urruneko herrialdetara. Horrez gain, badiako ontzioletan eta bestelako enpresetan lan egiteko aukera ere handia zen.

Lana aurkitu bakarrik ez, familia ere bertan osatu zuen berastegiarrak. Pasai Donibaneko (Gipuzkoa) Constanza Otazo Makazagarekin ezkondu zen, eta lau ume izan zituen bikoteak: Jose, Dolores, Eugenio eta Martin. "Familia oparoa zen. Gure

aitona ausarta zen negozioetarako, eta amonak ere asko lagundu zion. Logelak eskaintzen eta bazkariak ematen zituzten hostal bat zuten, eta, horrez gain, aitona kamioiak ere bazituen etxabe batean; zementua eta beste produktu batzuk garraiatzen zituen haietan. Arotza zen ofizioz, baina beste arlo batzuetan ere aritu zen", azaldu du Ferminek. Gainera, bikoteak Pasaiaiko familia dirudunekin harreman onak zituela ere ondorioztatu dute gauzatutako ikerketa lanari esker.

1936ko uztailaren 17an, Espainiako armadako militar batzuek Bigarren Errepublikako gobernuaren aurkako estatu kolpea jo zuten, eta horrek, nola ez, eragina izan zuen Pasaian, baita Intxaurrondo Otazo sendian ere. "Gerra piztu zen, eta gure aitona lagun haiek, interesengatik edo, Francoren alde jarri ziren. Gure aitona, berriz, beste aldekoa zen; aitona-amonak oso euskaldunak ziren, eta Francoren aurka zeuden", azaldu du Ferminek. Gerra hasita, faxisten kontra borrokatzera joan zen Intxaurrondo. "Amak esaten zigun gure aitona gudaria izan zela".

Gudarien eta errepublikazaleen defentsak lanak izan zituen Mola generalaren reketean erasoaldiari erantzuteko, eta azken horiek hurreratzeko hasi zirenean, Bilbora erretiratu behar izan zuten. "Amona ere Bilbora joan zen umeekin, senarraren alboan egotera". Han "kristorenak eta bi" pasatu zituztela dio Ferminek. "Italiarrak eta alemanak hiria bonbardatzen hasi ziren, eta gure amak gogoan zuen sirena hotsak entzutean korrika joaten zirela babes bila". Egoerarik latzenean ere, duintasuna erakutsi zuen Otazok, Intxaurrondoren emazteak eta lau haurren amak. "Eusko Jaurlearitzari laguntza eskatu behar izan zion, baina ez zuen dirurik eskatu; lau umeentzako arropa eskatu zuen, besterik ez", esan du Ferminek, hori egiaztatzen duen dokumentua erakutsiz.

Bilbon zela zauritu zuten Intxaurrondo. "Ez dakigu frontean edo hirian jazotako bonbardaketaren batean izan zen, baina gure



Pilar Larrañaga, ikerketan zehar aurkitutako dokumentuekin.



Constancia Otazo Makazaga

amak gogoan zuen bere aitak eskuetako behatzak alanbre bidez lotuta izan zituela". Zaurietatik erabat osatu gabe zegoela, berriro frontera eraman zuten. Handik aurrera ez zuten haren berri gehiago izan. "Gure amona, pobrezian egonagatik, senarrari zerbait bidali nahian ibili zen, baina ez zekien nora bidali. Halako batean, osaba Eugenio –Intxaurrendoren anaia– joan zitzairen aita preso zutela eta hil egin zela esanez. Ez zekiten non hil zen, baina bai atxilotuta eduki zuten lekuan hotz handia egiten zuela eta oso gaizki tratatu zutela", dio Ferminek.

### **Estigmatizazioa**

Gerra amaituta, galtzaileen bandoko beste asko bezala, Frantziara eraman zituzten Otazo, haren aita eta lau umeak. Bigarren Mundu Gerra handik gutxira piztu zen, eta Alemaniako tropak ia trabarik gabe sartu ziren Frantzian. Herrialdea bitan banatu zuten: Alemaniaren menpe geratu zen zati bat, eta Vichyko kolaborazionisten esku bestea. Erbesteratutakoen amesgaiztoak ez zuen amaierarik, eta Frantzian zirela atxilotu egin zituzten, Espainiako Errepublikaren aldekoak zirelako. "Alemaniako kontzentrazio esparruetara zihoazela, herri edo hiri bakoitzean gelditu egiten zen trenan, eta errepublikanoak, juduak, ijitoak, denak sartzen zituzten han; bagoiak gainezka zeuden, eta egin beharrekoak gainean egin behar izaten zituzten. Clermont-Ferrand hirira heldu zirenean, bagoiko atea ireki zituztenean eta han zegoen jendetzaz ohartu zenean, aitarekin eta umeekin ihes egin zuen amonak". Frantzian noraezean ibili zirela azaldu du Ferminek, "muga zeharkatzea lortu eta Pasaia itzuli ziren arte".

Jaioterrira itzulitakoan bizi zuten egoera oso bestelakoa izan zen Otazo eta haren umeentzat; gerra aurretik familia oparoa zena, pobrea zen. "Pasaian dena konfiskatu zieten; aitonaren kamioiak frankisten esku zeudela zioen gure amak, baita haiek gordetzeko erabiltzen zuten lokala ere. Maila sozial egokidun familia hura estigmatizatuta zegoen herrian". Hala ere, egoera txarrean pasaitar batzuen laguntza izan zutela esan izan zuen Ferminen eta Pilarren amak. "Arrantza ontziak portura iristen zirenean, legatzen bat edo beste arrainen bat ematen zieten. Arrantzale haiek artean gogoan zuten gure aitona zein zen".

Familia, ibilian-ibilian, Zumaiara heldu zen. Fermin eta Pilarren ama Dolores neskame lanetan aritu zen leku askotan. "Getarian lanean zebilela, gure aita –Fermin Larrañaga Azpeitia– ezagutu zuen, eta ezkondu egin ziren. Hemen, Getarian jaio ginen gu", diote Pilarrek eta Ferminek.

Bizitzak aurrera egiten badu ere, ez da erraza, ez, bizitako une latzak ahaztea. Are zailagoa da Dolores Intxaurrendok bezala aita haur txikia zenean galduz gero. Hil bakarrik ez, desagerrarazi egin zuten. "Etxean beti izan dugu hutsune bat; amak tristura hori zeukan barrenean. Beti entzun izan diogu 'nire aitak ikusiko balu...' edo 'non da zuen aitona?'. Pasaia Udalera ere

**"Ez zekiten non hil zen, baina bai atxilotuta eduki zuten lekuan hotz handia egiten zuela"**

**"Maila sozial egokidun familia hura estigmatizatuta zegoen herrian"**

idatzi zuen, bere aitarekin zer gertatu zen jakin nahi zuela eta. Tristura hori, min handi hori, hil arte izan zuen berarekin". Iazko azaroaren 16an hil zen Dolores Intxaurren, 90 urterekin, aitaren gorpuzkiei Berastegin lur ematerik lortu gabe.

### **Ikerketaren hasiera**

"Beti aldarrikatu dut aitona den Intxaurren abizena. Eskolan barre egiten zidaten Larrañaga Intxaurren nintzela esaten nuenean. Urteak aurrera zihozela ikusita, aitona arrastoa bilatzen hastea erabaki nuen". Hala hasi zuen Ferminek ikerketa.

Lehendabizi Aranzadi zientzia el-

kartera jo zuen laguntza eske. "Zer informazio nuen galdetu zidaten, eta esan nien 'hotz handia' egiten zuela aitona izan zuten lekuan. Batallon Larrañaga izeneko batailoia ere gogoan nuen. Euskal Herriko gudarien batailoiei begiratzen hasi ginen, bai EAJrenak, baita ANVkoenak ere, baina horietan ez zen bere izena agertzen". Bai, ordea, haren anaia Eugeniorena; *Lenago il* izeneko batailoian aritu zen, eta Ondarretako kartzelan egon zen preso. Eugenio izan zen aitona hil egin zela esatera etorri zitzaiguna".

Aranzadik ez zuen Intxaurrenaren informaziorik aurkitzen. "Artxibo asko oraindik berreskuratuta gabe zeudela eta Guadalajarako artxibategiarekin harremanetan jartzeko esan zidaten". Guadalajarakora bakarrik ez, ordea, Avilako eta Salamancako artxiboetara ere deitu zuen Ferminek. "Kontzentrazio eremuetako zerrendak ere arakatu nituen, eta ez nuen ezer aurkitu; gure aitona ez zela existitu zirudien".

Itxitako ate batean, baina, esperantzarako zirrikitu bat zabaldu zen. "Guadalajarako artxibora deitu nuen berriro, eta ordura arte hitz egin gabeko pertsona batekin izan nuen solasaldia; beste jarrera bat zuen hark, irekiagoa. Esan zidan milaka dokumentu zituztela klasifikatuta, baina beste milaka sailkatu gabe ere bai. Instantzia berriro bidaltzeko eskatu zidan, eta esan zidan hura jasotzean izango zuela bilaketarako denbora hartzeko justifikazioa. Hala egin nuen, eta astebetara jaso nuen erantzuna: 'zuen aitona aurkitu dugu'. Izugarrizko poza sentitu nuen".

Dokumentuen arabera, Intxaurren Gijonen izan zuten preso, Asturiasko frentean. "Horrek pentsarazten dit gure aitona ez zela gudaria, milizianoa baizik. Nik dakidala, Euskal Herrian gerra galdu zutenean, Santanderrera eta Santoñara (Kantabria, Espai-



Martin Hilario Intxaurrenaren dokumentazioa.



Fermin Larrañaga Intxaurren.

nia) erretiratu ziren gudariak, eta han zirela, italiarren aurrean errenditu ziren. Gure aitona Gijonen egon zelako, milizianoa izango zela pentsatzen dugu".

Behin atxilotuta, San Pedro de Cardeñako (Burgos, Espainia) kontzentrazio eremura eraman zuten Intxaurren, eta handik Quintora (Zaragoza, Espainia), langileen bataloi batera, behar-tutako lanak egitera. "Gure aitona izena 1938ko eta 1939ko zerrendetan irakur daiteke; 1939ko iraileko zerrendan azaltzen da haren izena, baina ordurako urtebete zeraman hilda". Hilda egonagatik zerrenda hartan agertzeak badu azalpen bat, Ferminen ustez: "Ustelkeriagatik izango zela iruditzen zait. Bataloi horietan dirua jasotzen zuten pertsonako, eta horregatik mantenduko zuten haren izena zerrendan hainbeste denboran".

Hilik bai, baina non? Ingurune hartan hobi komunik izan ote zen begira hasi zen Fermin. "Quinto inguruan hobi komun bat izan zela jakin nuen, 159 gorpu lurperatu zituztela han, horietatik 140 identifikatu gabeak zirela, eta 1959. urtean lurpetik atera eta Erorien Haranera eraman zituztela guztiak". Hori jakinik, aitona aurkitzeko beste ate bat zabaldu zitzaion, baita berehala itxi ere. "Haranean milaka gorpuzkin zeudela esan zidaten; haietatik batzuk identifikatuta, baina beste hainbat identifikatu gabe. 'Ez dugu esaten zure aitona hezurak hemen ez daudenik, baizik eta gure artxiboetan ez dela bere izena agertzen. Hemen egonda ere, identifikatu gabeko beste guztiekin batera egon daiteke', idatzi zidaten. Aranzadiren ustez, horma batekin egin genuen topo, eta oso zail ikusten zuen handik aurrerako lana; ia ezinezkotzat jotzen zuten aitona aurkitzea. Ordurako sei bat urte neramatzan lanean, eta ezezko hark beheja jota utzi ninduen. Anai-arrebei esan nien norbaitek lekukoa hartzea eskertuko nukeela".

### Duintasuna

Pilarrek, Ferminen arrebak, jarraitu zuen lanarekin. Desagertuen inguruan irratian entzundako elkarrizketa batek bultzatuta, Irungo (Gipuzkoa) errepublikazaleen elkarte batekin jarri zen harremanetan. "Hango kide batek ikaragarri lagundu zidan. Bere osabaren arrastoan bila ibilia zen, eta hark Espainiako Gobernuko Memoria Demokratikoko eta Patrimonioko erakundeetara bidalitako gutunak erakutsi zizkidan, nik horiek gure aitona buruzko eskaria egiteko egokitu eta erabiltzeko".

Madridik albiste onik jasotzen ez zuela ikusita, eta aitona Zaragozan egon zela preso jakinda, hartako hilerrietara deika hasi zen Pilar. "Banaka-banaka hasi nintzen hilerrietako kideekin harremanetan jartzen, eta, halako batean, aurrez ezezkoa eman zidaten hilerri batetik dokumentu bat iritsi zitzaidan. Gure aitona 1938ko uztailaren 14an hil zela zioen paper hark, eta bi egun geroago, uztailaren 16an, hilobiratu zutela, Torreroako hilerrian, Zaragozan. Paper hari esker jakin genuen non eta noiz hil zen.



Gerora, aitonaren hezurak Erorien Haraneko basilikako zer puntutan zeuden zioen beste dokumentu bat jaso nuen; baieztatu genuen aitonaren gorpua Torreroako hilerritik atera eta Erorien Haranera eraman zutela familiari ezer esan gabe. Bi dokumentu haiekin Madrilerako joan gintezkeen laguntza eske", dio Pilarrek.

Amaren izenean bina gutun igorri zituzten erakunde horietara. "Gutun haietan Europako Kontseiluak onartutako artikulua bat aipatzen genuen; sendiek familiartekoen gorpuzkiak beraiekin izateko zuten eskubideak aipatzen zituen artikulua hark. Bestalde, aitona Espainiako Gerrako biktima izendatzea ere eskatu genuen, baina inongo diru saririk ez espero izateko erantzun ziguten". Azken esaldi hori gogoratzeak sumindu egiten ditu familiako kideak. "Beti esan izan dugu garbi ez dugula inongo mendekurik nahi, ezta inongo onurarik ere. Hildako aitona era duin batean tratatzea soilik nahi dugu. Francoren aldeko hildakoak elizetako aldareetan egon dira, baina badirudi beste aldekoak ez direla existitu ere egin. Gu ez gatoz inongo zauritan arakatzera, ezta ezer aurpegiatzerara ere; hainbeste sufritu duen pertsona bati duintasuna eman nahi diogu. Besterik ez", dio Ferminek.

2018an Espainian izandako gobernu aldaketaren ondorioz, gauzak mugitzen hasi ziren Madril: senitartekoen hezurak Erorien Haranetik ateratzeko eskatu zuten familiak bilera batera deitu zituen Patrimonioko zuzendaritzak 2019. urtean. "Gorpuzkiak ateratzeko erabakia hartuta zegoen, eta gure eskaera izan zen aintzat hartu zutenetako bat. Aitonaren hezurak Santo Sepulcro kaperan zeuden, eta handik ateratzeko lanetan hastekoak zirela adierazi zuten".

"Bideragarritasuna" hartu behar zen kontuan, ordea. Basilikaren egoera aztertzeke ikerketa egitea eskatu zuen erakundeak, eta lan haren emaitzak garbi erakutsi zuen gorpuzkiak ateratzea ez zela hain erraza izango. "Gogora institutuaren egoitzan egindako bilera batean esan ziguten basilikako toki batzuk oso kaltetuta zeudela, eta ondorioz, ezin izan zutela sartu leku batzuetara. Zuntz optikodun kamera baten bidez ikusi zuten kaxa batzuk puskatuta zeudela, erorita, eta hezurak lurtean botata. Madrilek konpromisoa hartu zuen hezurak ateratzeko, baina edozein arrisku, edozein istripu saihesteko, basilikako leku horiek habeekin sendotu behar zituzten. Eskatu ziguten itxaropen handirik ez izateko, egin beharreko lanen bideragarritasuna eta proportzionaltasuna kontuan hartuko zituztelako".

Tenpluaren egoera aztertzeko zuten bitartean, familiartekoen DNA laginak hartzea eskatu zieten Patrimonioko ordezkariak, hezurak aitonarenak zirela baieztatzeke helburuz. Amaren eta pare bat lehengusuren laginak eramanda dituzte Donostiako laboratoriora batera, eta orain hezurak atera eta lagin horiekin probak egiteko zain daude.

**"Gorpuzkiak ateratzeko erabakia hartuta zegoen, eta gure eskaera izan zen aintzat hartu zutenetako bat"**

**Aitona bilatzeko egindako lanak familia elkartzeko balio izan die**

Batallón Trabajadores n.º 136		Comp.º	Clase <i>Enatajador</i>	N.º
Apellidos	<i>Luchaurrondo Gaurborrea</i>		Nombre	<i>Hilario</i>
Naturaleza	<i>Berastegi</i>	Provincia	<i>S. Sebastián</i>	
Edad	<i>42</i>	Fecha de nacimiento	de	de
Estado	Núm. de hijos (..... varones y ..... hembr.)			
Nombre de los padres	<i>Martin y Inés</i>			
Profesión	<i>Chofer</i>	Residencia	<i>Padegás</i>	
Provincia	<i>S. Sebastián</i>	Calle		
Frente donde fué hecho prisionero	<i>Gijón</i>			
Junta clasificadora	<i>Gijón</i>	Clasificación		
Alta en el Batallón	<i>12</i>	de	<i>Junio</i>	de 193 <i>1</i>
Baja definitiva		de		de 193
		Motivo	<i>Redes cara</i>	

Langileen batailoian aritu zeneko ziurtagiria.



2019an Getarian egin zen omenaldiko argazkia.

Berastegiko Udalarekin ere jarri ziren harremanetan aitona bertako hilerrian lurperatu ahal izateko. "Alkateak esan zigun ez zela horretarako inongo arazorik izango, gorpuzkiak berreskuratzen baldin bagenituen eremu bat egokitu-ko zutela haren hezurrei atsedena emateko".

Prozesua abian egonagatik, *impassé* egoeran daudela diote anai-arrebek. "lazko maiatzean deitu nuen azken aldiz Patrimoniora, eta esan zidaten basilikan lanean hasteko baimen guztiak lortu dituztela. Guk, gure aldetik, DNA laginak eman ditugu, eta orain zer gertatuko den zain gaude".

### Familia harremanak

Aitona bilatzeko egindako lanak familia elkartzeko eta senideen arteko harremanak estutzeko balio izan diela ere gaineratu dute Pilarrek eta Ferminek. "Aitona Erorien Haranean zegoela jakin genuenean, lehengusuon arteko harremanak areagotu egin ziren. Getarian Espainiako Gerrako biktimak omendu zituztenean, Tolosako, Zumaiako eta Getariako lehengusuak elkartu ginen, eta bildutako informazio guztia elkarbanatu genuen: Berastegiko sustraiak, Pasaiaiko bizipenak, aitonaren eta amonaren argazki batzuk, bidean gauzatutako prozedura guztiak... Guztia pasatu genien lehengusuei".

Omenaldia 2019ko martxoan izan zen Getariako hilerrian. Frankismoaren aurka borrokatu eta errepresioa jasan zuten getariar guztiak omendu zituzten ekitaldi hartan. "Omenaldi xumea bezain hunkigarria izan zen. Familiak isilean gorde dituzte historiak; min handia bizi izan da familietan". Getariako Udala "biziki" eskertzen dute omenaldi hura egiteagatik, baita aitona aurkitzeko bidean lagun izan dituzten banakakoak eta elkarteak ere, hala nola Irungo laguna, Aranzadi zientzia elkarte, Gogora Institutua... "Laguntza hori edukitzea ezinbestekoa izan da", dio Pilarrek.

84 urte beteko dira aurten Martin Hilario Intxaurren hil zela. Pasaia joan izan denean oraindik ere haren oihartzunak aurkitu izan dituela dio Ferminek. "Behin kuxkuxeatzera joan eta aitona-rena zen lokalean sartu ginen. Pintore batzuk zuten alokatuta, eta orain 80 urte bezalaxe zegoen: pipiak jandako baldak, hormak... Han ez zutela ezer berritu zirudien; gure aitona utzita bezala zegoen. Gaur egun, handik pasatzen naizenean zera esaten dut: 'Hemen gure aitona lokal'".

## “Memoria historikoa ez da erabili behar gorrotoa transmititzeko, gertatutakoa barneratzeko baizik”

**AINTZANE EZENARRO** GOGORA INSTITUTUKO ZUZENDARIA



Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko zuzendaria da Aintzane Ezenarro (Getaria, 1971). Garai gordinetan demokraziaren alde lan egin zutenen memoria jasotzearen beharra aldarrikatu du hark.

### **Zer helbururekin sortu zen Gogora?**

Eusko Legebiltzarrak eta zenbait taldek bultzatuta sortu zen Gogora, memoriaren politika publikoak koordinatzeko helburuarekin. Atzera begiratu behar zela pentsatzen genuen, begirada hori egiterakoan genituen desberdintasunak kontuan hartuta. Gogoraren zuzendaritza 30 pertsonak osatzen dute; legebiltzarreko talde guztien –VOX kenduta–, Eusko Jaurlaritzako sailerako, Eudeleko nahiz herri erakundeetako ordezkariak. Adibidez, Paco Etxeberria zuzendaritzako kidea da; zuzendaritzan denetarik izaten saiatu gara.

Memoria historikoaren lanketa horretan Espainiako Gerra eta lehen frankismoa jasotzen dira, baina baita 1960tik aurrera sortutako bestelako indarkeriak eta haiek eragindako sufrimenduen gaineko memoria ere. Giza eskubideen urraketen memoriaz ari gara

hizketan, balio demokratikoei eutsi zioten pertsonen eta kolektiboaren inguruan. Ez dugu soilik traumaren transmisioa landu behar; bereziki, egoera zailenetan berdintasunaren, askatasunaren eta justiziaren alde egin zuten pertsona horien memoria ere jaso behar dugu.

### **Zer lan egin dituzue urteotan?**

Memoria historikoari buruzko ikerketa asko egin ditugu. Adibidez, ikerketa bat gauzatutako ondoren jakin dugu, gutxienez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 21.000 pertsona hil zirela 1936ko gerran. Aurretik ez zegoen halako errolda ofizialik, eta hori egiteko erregistro zibil guztiak, parrokiako erregistroak, hilerrietakoak, paperak dauden leku guztiak arakatu ditugu modu sistematikoan. Horrek ez du esan nahi horiek direnik gerran hildako guztiak, baina horiek badira, behintzat. Izenak bakarrik ez, pertsona bakoitzaren dokumentazioa ere berreskuratu dugu. Orain, presoekin ari gara lanean, preso egon ziren guztiak. Lehen atakan, 1945. urtera arteko presoek zerrenda egingo dugu, eta gero, epeak zabaltzen joango gara.

Garai hurbilagoko kontuen inguruko ikerketak ere egin ditugu, eta horiek ezagunagoak dira. Ikerketa asko egin ditugu ETArekin eta beste terrorismo mota batzuen inguruan. Biktimen testigantzekin osatutako ikus-entzunezko bilduma bat ere badugu; gerra garaikoen testigantzak daude jasota, baina bereziki, gaur egungo biktimenak. Biktima guzti-guztiei eskaini diegu beren testigantza grabatzeko aukera; etorkizunerako hor gera daitezke horiek.

2023ra begira, berriz, XX. mendean Euskadin egindako giza urraketen inguruko erakusketa bat ari gara prestatzen, batez ere testigantzetan oinarrituta. Dena den, historia ere kontatuko du. Izugarritzko erronka da. Gure helburua urraketa horiez hitz egitea da, bereziki urraketa horiek jasan dituztenen ahoetatik.

#### **1960tik hona izandako indarkeria kasuek ezkutatu egin al dituzte Espainiako Gerran eta ondorengo urteetan izandakoak?**

Orduan gertatutakoak ez dira egon estalita ETArekin indarkeriagatik; estalita egon dira trantsizio eredu bat ezarri zelako Espainian. Ez zait gustatzen muturreraino kritikatzeari, garai hartan ez zen-eta erraza izango trantsizio hura egitea. Baina orain egiten ari garen memoriaren inguruko lanketa honek zerbait erakutsi badu, memoriarik gabeko trantsizioa egitea ez zela ideia ona izan da. Izan ere, ez du zauririk konpondu, eta sufrimenduak hor jarraitzen du. Gero, beste 40 urte pasatu dira memoriaren kontu dena martxan jarri den arte.

2000. urtean, Emilio Silva bere aitona bila hasi zen, eta aurkitu egin zuen; horrek jarri zuen martxan desobiratze prozesua. Lehen exhumazio hartan izan ziren Paco Etxebarria eta Lourdes Errasti. Egindako lanaren aitzindariak izan dira, ez Euskal Herrian bakarrik, baita Espainian edota munduan ere. Bide bat ireki zen, eta hari tiraka, lege berriak egin zituzten Espainian. EAEn baino geldoago doa kontua, hala ere; hemen jarraipena izan du lanak 2000. urte hartatik.

Orain, desobiratze prozesua ia-ia amaitu dela esan daiteke. Noizean behin agertzen da da hobiren bat –orain gutxi Bilboko Begoñako hilerrian

"MEMORIARIK GABEKO  
TRANSIZIO BAT EGITEA EZ  
ZEN IDEIA ONA IZAN"

agertu da bat–, baina lan asko eginda dago jada. Esan beharra dago EAEn ez dagoela desadostasun handirik gai honen inguruan; PP ere ez dago guztiz kontra. Ez da eztabaidarako gaia; denok batera goaz, eta nahiko ondo doa prozesua.

Pena handiena da jendea hil egin dela; kasu batzuetan, 36ko gerran borroka egin zutenen seme-alabak ere hil dira. Laster omenaldi bat egingo dugu Derioko Vista Alegre hilerrian, eta fusilatu zituzten herritar guztiak gogoratuko ditugu. Guztira, 1.500 lagun fusilatu zituzten, eta 500dik gora hilerri horretan. Haien familien kontaktuak baditugu, eta gonbidatuko ditugu omenaldira. Berandu da, baina familiarteko batzuek izango dute omenaldi hori bizitzeko aukera, eta hori da pozik handiena ematen didana.

#### **Gai hau aipatzen den bakoitzean, Espainiako gizarteko edo politika munduko ordezkari batzuek diote halako eskaerekin, halako ikerketekin, zauriak zabaldu egiten direla.**

Pedagogia lana egin behar da, baina oraindik ere bi Espainien kultura oso errotuta dago. Anai-arreben arteko gerrak oso zailak dira kudeatzen, are gehiago gaizki ixten baldin badira. Hemen ez zen gerra zibilik egon; demokraziaren kontrako kolpe bat egon zen, eta huts egin zuen eta horrek eragin zuen gerra. Nik uste bide onetik ari direla orain; pedagogia demokratikoa egiten ari dira, azpimarratzen dute demokrazia batek ezin duela halako ezer jasan. Eta hori letra guztiekin esan behar da.

Memoria historikoa lantzerakoan, gordin jokatu behar da, geure buruari gezurrik esan gabe. Memoriak ez du izan behar besteak egindako oker hori azpimarratzeko. Memoriak balio behar digu kamerari buelta eman, eta zera pentsatzeko: 'Ni non egon naiz?', 'nik zer egin dut edo zer ez dut egin?', 'orain dakidanarekin zer egingo nuke?'. Memoria ez da erabili behar gorrotoa mantentzeko edo transmititzeko,

memoriak balio behar du gertatutakoa barneratzeko eta aurrerantzean halako jokabiderik ez dudala izango erabakitzeko. ■

# GORPUAK ATERATZEKO ESKAEREN ERDIAK EUSKAL FAMILIENAK

Gerra amaitu eta hurrengo urtean hasi ziren Erorien Haraneko lanak egiten Guadarramako (Madril) mendilerroan, Francisco Franco Espainiako diktadoreak hala aginduta. Hemezortzi urte behar izan zituzten lanak amaitzeko, eta hurrengo urteetan Espainiako Gerran hildako hainbat gorpu eraman zituzten hara. Lehenbizi, matxinoen aldekoenak; errepublikazaleenak ere bai, ondoren. 33.000 gorputik gora daude gaur egun Cuelgamuroseko haranean eraikitako monumentu faraoniko horretan.

"Monumentua izugarri handia zen, eta familiei eskatu zieten beren familiartekoen gorpuak Madrilerara bidaltzeko", jakinarazi du Aintzane Ezenarrok. "Gobernadore zibilek eta orduko alkateek kontsultak egin zituzten matxinoen alde borrokatu zutenak non zeuden lurperatuta jakiteko, eta ondoren, familiei baimena eskatu zieten gorpuzkiak Haranera eramateko. Familia askok, nahiz eta gerran frankisten alde borrokatu, ez zuten beren senitartekoak hara eramaterik nahi. Dena den, gorpuak baimenik gabe eramaten hasi ziren agintariak. Gerora, katolikoak ziren errepublikazaleen gorpuak eraman zituzten hara, eta azkenerako, edozein eramaten hasi ziren. Oso patetikoa izan zen guztia", dio Ezenarrok.

Eusko Legebiltzarrak 2018an egindako proposamen baten ondorioz, Gogora institutuak ikerketa bat abiarazi zuen Erorien Haranean Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbat lagun hilobiratu zituzten, haien jatorria zein zen eta hilobiratzeko familiaren baimenik izan al zuten jakiteko. Ikerketaren arabera, euskal jatorriko 1.234 lagun daude han hilobiratuta: horietatik daude 920 identifikatuta. Kasu gehienetan, ezin izan dute zehaztu gorpuak lekualdatzerakoan senideen baimenik izan al zuten.

Erorien Haranetik senideen hilotzak ateratzeko eskaerak egin dituzte familia batzuek urteotan. Ezenarroren esanetan, 64 eskaera onartu ditu Espainiako Gobernuak, eta horien erdia inguru -31, zehazki- euskal familienak dira. "Esaten ez den beste datu bat da 31 kasu horietako gehienak matxinoen aldekoak zirela. Batzuk errekrutatu egingo zituzten, eta izango ziren preso egonda frentera eraman zituztenak ere, baina haietako batzuk beren borondatez borrokatu zuten Francoren alde. Ahaztu egiten zaigu iraganaren konplexutasuna nolako den".

Desobiratze prozesua hasi zenetik, prozesua geldiarazteko errekurtsioak egon direla azaldu du Ezenarrok. "Batzuen atzerapen estrategia hori da, baina sinesten dut, hala esan digutelako, badagoela Harana irekitzeko borondatea. Ulertzen dut familiak denbora asko ari direla itxopen eskaera egin zutenetik, baina ez dago gure esku", adierazi du Gogorako zuzendariak. ■



Azkoitian egindako desobiratzea.

GOGORA



**Desnibela** 414 m  
**Zailtasuna** ●●●●●  
**Luzera** 11 km  
**Denbora** 3 ordu

**Erreferentziak**  
 0.00 Uztapide plaza, Zestoa  
 0.40 Iraeta auzoa  
 1.00 Arroa Goia auzoa  
 2.00 Endoia auzoa  
 2.40 Ekainberri  
 3.00 Zestoa



## ZESTOAKO TXOKO BEREZIEI JARRAIKA

MIREIA GALARZA BASTIDA

Zestoako ikur ukaezina da bainuetxea, baina herriko txokoek badituzte ezkutuan bestelako altxorak ere. Uztapide bertsolaria zenaren izena hartzen duen plazatik hasten da hilabete honetako proposamena, bere omenez dagoen bustoaren aurrean. Handik, herriko plaza zeharkatuta, garai bateko tren estazio aldera joan beharko du mendizaleak, ondoren Iraetako bide berdea hartzeko.

Trenaren zubia igarota, zeharo aldatuko da paisaia, zuhaitzen magalean barneratuko baita mendizalea. Bidean zehar igaroko ditu garai batean Urolako trenak zeharkatzen zituen tarreak. Behin Iraetara iritsita, ezkerrean hartu behar da bertan, Arroa Goikoa auzora joateko. Bide zati hori kontu handiz egitea komeni da, autoak igarotzen baitira leku horretatik. Juan Erentxun kalean aurrera jarraitu behar da gero, maldan gora. Bidegurutze bat egongo da aldapa amaiera samarrean, eta puntu horretan eskubira hartu beharko du mendizaleak, Endoia aldera, leku berean argibideek adierazten duen bezala. Mendibidea hasten da hor, eta eguraldiaren arabera lokatz dezente ere topa daiteke, beraz, komeni da tentuz ibiltzea.

Handik barrena Endoiara iritsiko da mendizalea, Uztapideren umetako auzora, eta nekatuta sentituz gero, aukera izango du bertako

tabernan zerbait hartzeko. Hasitako leku berean amaitzen da ibilbidea, Zestoan, baina bertara itzultzeko bi aukera daude: bide berria eta zaharra. Berria azkena egindakoa da, autoek erabiltzen dutena; zaharra, aldiz, ezezagunagoa, garai batean Endoiko bizilagunek herrira jaisteko baliatzen zutena. Bertatik jaisteko, Zestoako errepidea hartu beharko dute herritarrek, eta Txankarta baserriaren ondotik beheraka hartu. Handik iritsiko da mendizalea Sastarrainera, Ekaingo kobetako museora eta Lili Jaurigira. Behin leku horretara iritsita, Zestoako herrigunearekin egingo du topo mendizaleak.

### Nola iritsi

- Autobusez. Barrualdeko herrietatik joateko UK01, UK03, UK05 eta UK06 lineak erabili behar dira. Kostako herrietatik, berriz, UK03 eta UK06 lineak iristen dira Zestoara; Zarauztik eta Zumaiatik abiatzen direnak, hain zuzen.
- Autoz. Autobusez iritsi ezin daitekeen herrietatik joateko, berriz, autoa hartu beharko da.




Xabat Olaizola aurkezleak Manuel Arregi zestoarra izan du bidelagun ibilbide osoan zehar.



**TELEBISTAN ERE**

**GUKA!**  
erto





Floreagako dorreetako bat gauez, olioa mihise gainean.

# "Barra ertzeko bertso laritrik beti izan dut gehiago"

**ENERITZ ARTETXE** BERTSOLARIA

Txikitatik izan du Eneritz Artetxek hizkuntzarekiko atxikimendua eta horrekin jolasteko zaletasuna. 10 urte zituela hasi zen bertso eskolan, eta oraindik gogoan du umea zela ikasi zuen lehen bertsoa. Orduetik makina bat plaza eta antzokitatik igaro da bertsolaria. Gaur, Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko koordinatzailea da. Testua: **Miren Elorza**. Marrazkia: **Gorka Larrañaga**. Argazkiak: **Maxixatzen eta utzitakoak**.

**U**stez, Loidisaletxeri jarritako puntu bat eta hark emandako erantzuna izan ziren Eneritz Artetxek (Azkoitia, 1990) lehenbizikoz ikasi zituen bertsoak. Gogoan du osabak nola kantatzen zion, eta umetan ikasitako bertso haiek ahaztezinak zaizkio Artetxeri, oraindik "hasi eta bukatu" abesten baititu. Orduetik bertso asko ikasi ez dituela dioen arren, hainbat ekarpen egin dizkio bertso laritziari; bertso eskolako ikasle izatetik, 15 urterekin irakasle izatera pasatu zen.

Ernirraitz Bertsozale Elkarteko kidea da azkoitiarra, eta azken lau urteotan Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko koordinatzailea ere bada. Elkarte horren proiektuaren egitekoaz arduratzen da Artetxe, eta, besteak beste, *Gu ere bertsoan* hizkuntza arautuko egitasmoa –eskola orduetan bertsoan egiteko proiektua– koordinatzen du. Bestalde, lau urtean behin txapelketak antolatzeaz ere arduratzen da.

Azken urteotan oholtzaren beste aldean dabilen arren, Artetxek ondo gogoan du plaza batean bertsoan egin zuen lehenengo aldi hura: 13 urte zituela, bertso eskolako beste bi kidearekin batera, Arrasaten (Gipuzkoa) kantatu zituen

aurreneko doinuak. Lehenbizikoz oholtzara igo aurreko urduritasunaz ere oroitzen da, baita hara igo nahi ez zuela-eta irakaslearekin izan zuen liskar txikiarekin ere. Egun hartan nola jantzita zegoen ere "ondotxo" gogoratzen dela dio bertsolariak.

## **Grina, umetatik**

Bertso mugimenduan hasi zenetik gaur arte, oroitzapen eta bizipen mordoa ditu gordeta Artetxek. Batzuk hobeak, eta besteak, ez horrenbeste; baina denak kutunak. Adierazi duenez, irakasle lanetan aritu zenean saiatu zen aurretik bertso eskolan ikasi zuen guztia ume eta ez hain umei irakasten, eta ez bertsoaren osaketari zegokionez soilik: "Bertso eskolan bertsoan ikasi dugu, noski, baina horretaz aparte, beste hainbat kontu ere bai, hala nola bizimodu bat edukitzean, herri mugimenduko kide izaten, talde baten parte hartzen eta harreman sarea mantentzen". Bertso eskolan irakasle aritu den urteetan gustokoena izan duena berak bertan jaso zituen balioak transmititzea izan dela adierazten du Artetxek. Gutxien, aldiz, publikoaren aurrean kantatzearekin zerikusia duten gazteak





gustatzen zaizkiola dio: "Ikusten duzanean pertsona bat bertsotan ondo ari dela, baina ez duenean jendaurrean atera nahi, kostatu egiten da. Eta alderantziz ere bai: ikasle bat jendaurrera ateratzera animatu duzunean, ikaragarritzko tratua pasatzen ari dela ikustea ere ez da samurra izaten".

Azkoitiarrak etxetik jaso du hizkuntzarekiko eta euskal kulturarekiko zaletasuna. "Gurasoek beti esaten didate ostiral gauetan aita Setimonean egoten zela, eta gu Loiolatik bueltan hura agurtzera sartzen ginenean, bere magalean eseri, tebibistako mandoa hartu eta *Hitzetik Hortzera* saioari begira egoten nintzela, begiak zabal-zabalik". Hizkuntzarekiko eta kulturarekiko zaletasuna lanbide bilakatu du Artetxek. Gainera, ia hamabost urtez bertso eskolako irakasle izateaz gain, Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizen, eta Euskal Kulturgintzaren Transmisioan graduondoa egina du.

Bertsolarien artean filologo mordoxka egon ohi den arren, profil hori izateak bertsotarako sorkuntzan eraginik ez duela iritzi dio Artetxek. Are gehiago: bertso eskolan ibili izanak hizkuntzarekiko interesa eman diola, eta horren eraginez, filologia ikasketak egin dituela adierazi du. "Matematika ikasi duen batek hizkuntza ni bezain ondo edo hobeto menpera dezakeela iruiditzen zait. Gaur engungo txapeldunak begiratzea besterik ez dago: Maddalen Arzallusek, esaterako, Arte Ederrak ikasi zituen, eta Amets Arzallusek, kazetaritza".

Bertsolaritza "etengabeko mugimenduan" dagoen zerbait dela definitzen du Artetxek: "Belaunaldi berriak datozen heinean, gauzak mugitzen doaz, eta mugimendua dagoen bitartean, gizartea aldatu ahala, bertsolaritza ere aldatu egiten da". Era berean, azken urteetako

iraultzarik handiena feminismoaren eskutik etorri dela uste du azkoitiarrak. Zentzu horretan, ordea, zenbakietara mugatzea ez du gogoko. "Amorrua ematen dit zera esaten dutenean: 'Finalean ez da bigarren emakumerik sartu'. Ez gaitezen soilik zenbakietan geratu. Edo alderantziz, ez dugu esango final bat parekidea dela lau neska eta lau mutil daudelako soilik". Diskurtso osoan aldaketa handia egon dela uste du bertsolariak, baita gaiak jartzeko orduan ere, baina ez soilik emakumeak ahaldundu direlako, baita gai-jartzaileak "etengabeko prestakuntzan" dabilzalako ere, izan feminismoan edo beste alorretan.

#### Plazatik urrunduz

Azken urteotan bertsolaritza profesionalizatu den heinean, bertsoa kaleko inprobisazio eremuetatik desagertzen ari den sentipena du Artetxek. Bertsolaritzak "prestigioa" irabazi duela uste du, eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finalean BEC beteta ikusteak

### Eneritz Artetxe

- **Adina:** 31 urte.
- **Ikasketak:** Euskal Filologian gradua eta Euskal Kulturgintzaren Transmisioan graduondoa.
- **Lanbidea:** Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko koordinatzailea.
- **Bertsolaria ez banintz...** Andaluzian jaioko banintz, flamenka jantzi eta koplakantari ibiliko nintzen.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** ingurukoekin denbora pasatzea.



kultur mugimenduari ospea ematen diola adierazi du. Bertsoa jende gehiagorengana heldu den heinean, ordea, betiko bertsozale batzuk urrundu egin direla uste du. "Jaialdietan gazte asko ikusten da. Bertsoa beste modu batera iritsiko ez litzatekeen eremuetara iritsi da; teknologiak ere eragingo zuen hor".

Sare sozialetako bertsoa indartu, baina "tabernako barra ertzean ordu txikitana" entzuten zena murriztu egin dela dio azkoitiarrak, eta ondorioz, "kaleko bertsolariak" galtzen ari direla sumatzen du. Pandemiaren eraginez, gainera, jaialdien ereduarekin aldatu egin da, eta ez da bertso-afaririk, bertso-poteorik nahiz antzeko ekitaldirik egin. Jaialdi mota bakarra egin da, baina Artetxeren ustez, bertsoa ez da hori bakarrik. "Bertsoa kaleko

jardun bat izan da beti, eta hori galdu egin dugula iruditzen zait".

Haren ustez, izugarria da azken bi urteetan bertsolaritzak jasan duen bilakaera. "Barra ertzeko bertsolaritik beti izan dut gehiago, eta azken urteetan, barra ertzeko jarduna izatetik bakoitza bere etxean kantuan jardutera iritsi gara. Ikaragarria iruditzen zait ehunka lagun pantailaz bestalde etxeko paretari kantatzen ari ziren bertsolariak entzuten aritzea". Egoera horrek herriko bertsolariak ezkutatzea ekarri du. "Non geratu dira kaleko bertsolariak? Horiek ere bertsolariak dira". Jendea berriro ere bertso ekitaldiekin hasteko gogoaz dagoela adierazi du azkoitiarrak; "otordu gogoaz" dagoela, eta bertsoa betiko eremuetara iristeko itxaropentsu da Artetxe. ■■■

**GARAJE**

# AXIRI

**MARKA GUZTIETAKO AUTOAK  
KONPONTZEN DITUGU**

**Astelehenetik ostiralera:  
08:30-12:30 / 14:30-19:00**

**Larunbatean itxita**

Classic

San Joan, Axiri 13  
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)

Tel. 943-85 04 11 - 674 09 19 62

**OSKAR BERNAL GOMEZ**  
tailleraxiri@gmail.com



## Eguraldi iragarpena

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Bederatzi dina.




## Itzala

Zein da Maripurtzilen itzal zuzena?

## Mezu gordea

Espera zahar asko eguraldia iragartzeko trukuak direla ematen du. Jarri iruditxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia eta asmatuko duzu zer dioten honoko honek.





## Irudi engainariak

Puskatxo hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira; hau da, ez dagoz irudiarekin bat, osoantzekoak izan arren. Bereiz itzazu.

**Zer?!**

Eduki baina, baiena ez du bakterea behotzen.

Bide batez, marraztu iezaiazu zakar iletsu bat alban eta margotu.

Baia aterkia beharko dut ala ez dut beharko?

Dena lanbrotilta ekusten dut.

**HOZKIRRIA** **LANGARRA** **ISOBARA** **ARRANPALO**  
**ERREKA-LAINO** **ENBATA** **BELOZIPEDO** **ARRANGURA**  
**ZIKIMOLA** **HAIZAGAILU** **ANEMOMETRO** **UFADA-PALA**

## Bakoitzari berea

Lotu hitz bakoitzari dagokion irudia. Kontuan hartu mada bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta herren ageri dena ez dela beharbesteko zuzen erantzuna.

Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

# Antzinako garraioak Azkoitian



**TESTUA ETA ARGAZKIAK:** KEPA ALBERDI

Herri baten bizitzan garrantzi handia dute garraiobideek, eta gaur egun imajinaezina bada ere, XIX. mendera arte herri xeheak oinez egiten zituen ibilaldi luzeak nahiz motzak. Mende hartan erabat desagertu ziren oinez egiten ziren bidaia luzeak, eta distantzia laburrekoak ere asko murriztu ziren. Herri batetik bestera mugitzeko, animaliaz tiratutako gurdiak eta diligentziak nagusitu ziren orduan. Harrezkero, pertsonak garraiatzeko lokomozio motak izugarri ugarritu dira, baita teknologikoki aurreratu ere.

Azkoitian ere, herri batetik bestera mugitzeko, aurreko mende hasierara arte ez zen ezagutu animaliaz tiratutako diligentzia besterik. Errexileneko diligentzia izan zen inguruan ezagunenetakoa, Genaro Lopezek zuen *omnibus* izenez ezagutzen zena. Urolako trena inauguratu zenean, 1926an, ez zegoen ia beste garraiorik herrian. Soilik Donostiara joaten zen autobusa zegoen, eta gainerakoan, Errexil taberna aurretik ateratzen zen diligentzia. Francisco Arzallus *Errexil* bera zen etxe azpian zegoen zalditegiaren garraio eta diligentzia negozioaren jabea. Diligentzia hura Arroara, Zumarragara eta Elgoibarrera joateko erabiltzen zuten herritarrek. Garai hartan ez zen autorik herrian, eta pixka bat

geroago ere, soilik bi edo hiru ziren, Zelaiarena eta beste bakarren batena.

Urola eta Deba bailaren arteko komunikazioa betidanik izan da garrantzitsua, baina Azkoitik Elgoibarrerako joan-etorria egiteak beti izan du oztopo bat; Azkarateko gaina igo eta jaitea, hain zuzen ere. Aldapa horiek gogorak eta nekagarriak izan ziren ibiltarientzat nahiz ibilgailuentzat, harik eta errepidea zein garraio baliabideak hobetu ziren arte. XIX. mende erdi aldean izango zen tartean-tartean bi herri horiek lotzen zituen animalia garraioaren bat, baina gerora ezagutu zen Elgoibar-Azkoitia-Elgoibar bidea egiten zuen sei zaldiko posta gurdia. Gidaria aurrealdean joaten zen, kanpoaldean eserita, garai hartako bide bihurri eta zulgunez beterikoa ahal zuen erarik trebeanean igarotzeko. Diligentziak joaterakoan zein etortzerakoan geldialdia egiten zuen Azkarateko Kurutzeta baserrian, eta atsedenaldi bakoitzean hiru zaldi aldatzen zituen. Aurreko mendeko lehen

**EXTREMADURARA  
DAUDEN 800  
KILOMETRO EGITEKO  
24 ORDU PASATZEN  
ZITUZTEN AUTOBUSEZ**

hirukoan, bideak konpondu eta beste segurantzia batekin ibiltzeko moduan prestatu zirenean, La Guipuzcoanaren autobusak hasi ziren bide hori egiten, animaliaz tiratutako diligentziaren ordez. Gerora, gure herrian hain ezagunak diren Anton Haundi, Usula, Bravo, Joxe Patatero eta txoperratarrek hasi ziren bide hori eta beste batzuk egiten CAV enpresaren Compañía Autobuses vascongados autobus zuri-gorriekin. Azkoitik Elgoibarrerako edo alderantzizko bidaia egiten zuen konpainia haren autobusak, eta bidaiari arruntak, langileak zein baserritarrak garraiatzen zituen; azken horiek esne marmitekin eta barazkiekin joaten ziren, produktuak ondoko herrian saldu ahal izateko. Autobus hura hartu behar zutenek Azkarate gaineko Buenos Aires gailurreko Mamuen etxearen ondoan itxaroten zuten. CAVek Landakandan zuen garajea, eta autobus haiek beren denbora behar izaten zuten bidaia bakoitzean egiteko. Izan ere, Azkarateko edota Zumarragako bideetan autobusaren moteltasunari errepidearen bihurritasuna gehitzen zitzaion, eta gidariak maniobrak egin behar izaten zituzten bihurgune bat baino gehiagoetan.

Pertsonak garraiatzeaz gain, diligentziak eta autobusak





Azkoitia-Donostia lineako autobusa Loiolan, 1927an.



Azkoitiko aurrenekoetako autoa.

posta edo karga txikiak ere eramaten zituzten Azkoititik Elgoibarrera eta alderantziz. Esate baterako, Azkoitian ekoizten ziren abarketen zolak edo azpiak egiteko jutea itsasontziz eramaten zuten Indiatik Bilboko portura, eta handik trenez bidaltzen zuten Elgoibarrera, bloke handietan. Elgoibartik Azkoitira lau idiko gurdietan garraiatzen zuten hasiera batean, eta gero, Hispano-Suiza motako kamioiek hartu zuten erreleboa. Ondoren, Urolako trenaren martxan jarri zutenen, juteak trenez egiten zuten Azkoitirako bidea.

La Vascongada izan zen Urola aldean automobil zerbitzuak eskaini zituen lehen enpresa. 1917rako martxan zen enpresa hori, hango administratzaile Juan Egino jaunak eskaera luzatu baitzion Azkoitiko Udalarari urte horretan, Kale Nagusiko 43 zenbakian zuten etxeko arkuetara pasabidea eskatuz, bertan garajea zuelako. Bide batez, lurzorua zertxobait kentzeko eta beheartzeko eskatu zuten, ibilgailuek arkuaren goialdearekin talka egin ez zezaten. La Vascongada konpainiak Arroara joateko linea zuten, bidaiariak Donostiara edo Bilbora zihoazen trenak hartu ahal zitzaten gero. Aurreko mendeko bigarren hamarkada

amaieran, Azkoitiko zinegotzi zen Jose Laskurainek Tolosako Etxabe eta Martija enpresako arduradunekin hitz egin zuten, hark Azpeititik Tolosara egiten zuten zerbitzua Azkoitiraino luza zezan. Berehala luzatu zuten linea Azkoitira, eta oso baliagarria bilakatu zen, jendea garraiatzeaz gain, herrira posta ekartzen zuelako.

La Guipuzcoanaren historia Azkoitia-Donostia lineari lotuta dago, eta garraio linea hori 1925ean jarri zen martxan. Bi hamarkada geroago, 1944an, Jose Manuel Azpiazu Iraeta *Usula* taxistak Donostiako autobus linea erosi zuten. Berak jarri zuten martxan La Guipuzcoana autobus konpainia, Usulaneko autobusak izenarekin ezagutzen genuena. Garai hartan, Azkoitia-Donostia lineak hiru autobus zituen (bi Diamond eta Stewart bat), eta egunero lau zerbitzu eskaintzen zituen: bi Donostiarako noranzkoan eta beste bi handik itzultzeko.

Hamasei urte geroago, 1960an, jarri zuten martxan Aldalur autobus enpresa Maritxu Errazkinek eta Roque Aldalurrek. Azkoitian ezagututako lehenetariko taxilaria izan zen Aldalur, eta Errazkin inguruotan autobusak gidatzen hasi zen lehen emakumeetako. Hasiera haietan Aldalurrek Alfa Romeo

furgoneta bat zuten, eta aldaketa batzuk egin ondoren, hamar lagunentzako autobusa bihurtu zuten. Aldalur autobus enpresako ibilgailuak kanpora ere bidaiak egiten hasi ziren, Andaluziara eta Extremadurara, hain zuzen ere. Hasiera hartan, autobusean ez ziren egiten gaur eguneko moduko bidaia erosoak, bideak desegokiagoak eta autobusak eskasagoak zireako. Esaterako, Extremadurara dauden 800 kilometro egiteko 24 ordu igarotzen zituzten bidaiariak, batzaz beste, 40 kilometro orduko abiaduran. Gerora, Aldalur autobusen konpainia erreferentea izan da autobus modernoak erosten, eta Irizar enpresako bi solairuko Dragón autobus modeloa erosten ere lehenak izan zen Espainiako Estatu osoan.

Dena den, herri arteko autobus lineak izan dira erabilienak eta, hori horrela, ezin aipatu gabe utzi 1970eko hamarkadan Azkoitia eta Azpeitia artean ibili zen Olariaga enpresako *Urbanue* eta Tolosara joaten zen *Korreoa*. Zein ez da gogoratzeko autobus horiek gidatzen zituzten Martzelino, Jabier *Txanton* eta beste gidariekin?

Lehenxeago aipatu dugu gerora autobus konpainien jabeak izango ziren Usula eta Aldalur aurretik taxilariak izan zirela. Horien aurreko taxi



Diligentzia, Errexil aurrean.



Autobus zaharra.

gidariak, orduko ibilgailu gehienak bezala, auto beltzak erabiltzen zituzten, eta zilindrada handikoak ziren; normalean, ehun kilometroko hogei litro erregai kontsumitzen zituzten. Garai hartako taxiak zazpi eserleku izatera irits zitezkeen. Pelikuletan sarri ikusten den moduan, bidaiariak interfono edo tturutta bat erabiltzen zuten gidariarekin hitz egiteko. Klaxonak *kukutsa* izenez ezagutzen ziren, eta taxilarien argotean "andre uxatzaile" ere deitzen zitzaien.

Espainiako Gerraren ostean, 1940ko hamarkadan, ibilgailu zaharkituak bakarrik erabiltzen ziren taxi-lanetarako, eta ibilgailu haiek gasogenora egokitu izan behar izan zituzten, erregai eskasia zela eta. Horrela, gidariak taxian egur-ikatz ugari eraman behar izaten zuten hezetasunetik ondo babestuta, tarteka gasifikatzailea kargatzeko. Ibilgailu zahar haiek matxura asko izaten zituzten, eta konponketak ere gidariak beraiek egin behar izaten

zituzten, ahal zen neurrian. Matxura asko bidaiaren erdian gertatzen ziren, eta horrenbestez, bidaia bakoitza abentura bat izan zitekeen. Azkoitia bezalako herri txikietan, taxilari lanak ez zuen bizitzeko lain ematen, eta gehienetan, lan horrekin batera dedikazio osoa eskatzen ez zuen beste zeregin batean ere ibiltzen ziren taxilariak.

Herritar zaharrenek gogoan izango dute Luis taxilaria entzutetsua ere; *Atila* deitzen zioten taxia zuen, eta BI-11.111 matrikula zuen horrek. Duela hamarkada batzuk ibili zen inguruko bideetan bere taxiarekin, baina badira denboran hurbilago dauden eta horrenbestez ezagunagoak diren Joxe *Patatero*, Jabier Andueza, Miguel *Aitxu* eta Etxosta. Azken horien artean ezin aipatu gabe utzi Roberto taxilaria, adinean aurrera joan arren, herritarrei taxi-zerbitzua eskaintzen oraindik Azkoitiko taxi geltokian ikus dezakeguna. Azkoitiko taxilariak oso harreman hurbila izan dute beti herritarrekin, familia

ospakizun baterako, mediku larrialdietarako, ezkontzetarako, nahiz ehorzketa batera joateko erabili baita taxia. 1960ko hamarkadara arte taxi bezero nagusiak medikuak izaten ziren, herri batetik bestera mugitzeko edo baserri batera joateko ez ezik, zaurituak eta gaixoak erietxera eramateko ere erabiltzen baitzuten horiek taxia. Taxiek ambulanzien lana ere betetzen zuten, horien eskasia zela eta.

Azkenik, ezin aipatu gabe utzi garai batean inguruko errepideetan guriarekin eta zaldiarekin egiten zen lanbide bat; errekadista. Azkoitian eta inguruetan oso ezaguna izan zen Jose Alberdi Larrañaga *Kale*, bat aipatzearren. Hain ezaguna zen, non Azpeitiko Parrokiako sakristian jartzen zuten jaiotzan zegoen guriari "Kaleneko gurdia" deitzen zion. Kalek ez zuen gaztelania ondo menperatuko, eta guriaren aurrealdean honakoa zioen kartela eramaten omen zuen: "*Recadista zintzo y puntual, si se le paga*". ■■■

# Erraietatik, egokitzen denari helduz

**JAVIER BERISTAIN** ARGAZKILARIA

Musikazalea izanda, baina musika egiten jakin gabe, musikariak inguruan dituela bizi izan da Javier Beristain (Azkoitia, 1953). Argazkilaria afizioz eta ofizioz. Barrenak aginduta, berriz, era askotako elkarteetan eta herri mugimenduetan ibili da azkoitiarra, eta dabil.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **utzitakoak**.

**A**itona, aita eta semeetako bat musikariak eta musikagileak ditu Javier Beristainek: Candido Beristain Agirre trikitilaria zena "attitte"; Candido Beristain Larrañaga musikaria eta konpositorea zena "aitte"; eta semeetako bat Joseba Beristain konpositorea. "Ni, berriz, hor erdian. Musika ez dakit ezer, zero; baina oso musikazalea naiz, musikarik gabe ia bizitzen ere ez nuke asmatuko. Baina jakin-jakin ez dakit ezer, ezta nire anaiak ere. Hark, ordea, musika kontuan piloa daki, garai batean Loiola irratian anaiak eta beste lagun batzuk *La caja de musica* saioa egiten zuten", kontatu du Beristainek.

Etxean musikariak izan arren, musika ikastera ez zuten bultzatu haiek, hala esan du: "Orduan ikasi egin behar zela esaten ziguten etxean, eta eskolan ikasi egin behar zelako ez genuen musikarik ikasi, eta gero, eskolan ikasi ere ez. Gure aita biguna zen, hark ez zuen erriarrik egiten. Saiatu zen gu musikan hasteko tentatzen, hasiera eman zion, baina hura ez zen jardutekoa. Musika ez ikasi izanaren damu hori badaukat. Batzuek diote behin ere ez dela berandu, baina ez zait iruditzen kasu honetan hala denik". Aurrez

pentsatuta ez ditu egiten gauzak Beristainek, etorri bezala hartzen dituen horietakoa da: "Oso erraietakoa naiz. Momentuan bat hala bestea egitea tokatzen da, eta egokitzen den horri heldu eta aurrera, besterik gabe".

Musikazalea izanda, irratia edo musika entzuten denbora asko pasatzen du Beristainek. "Autoan beti irratia piztuta izaten dut, elkarrizketak-eta entzutea ere atsegin dudalako. Etxean, berriz, ordenagailuan denbora dezente pasatzen dut, beti musika jarrita". The Beatles, The Rolling Stones, Pink Floyd, Queen... taldeak ditu gustuko. Eta euskal musikarien artetik hiru ditu "ezinbestekoak": Mikel Laboa, Benito Lertxundi eta Xabier Lete.

## **Analogikotik digitalera**

Musikazalea bakarrik ez, argazkilaritza zalea ere beti izan da. Afizioa ofizioa egindakoa ere bada. 20 urte zituenetik dabil argazkiak ateratzen; bere kabuz hasi zen. "Nire erara argazkiak ateratzen-eta nenbilela, Azpeitian argazki elkarte bat sortzera zihoazela esanez etorri zitzaizkidan, eta han hasi nintzen; Azpeitiko Argazki Elkartearen sortzaileetako bat naiz. Astero elkartzen ginen. Garai hartan, diapositiba asko erabiltzen genuen, eta elkartean proiektzioak egiten genituen;



elkarren lanak ikusi eta zer gustatzen zitzaigun eta zer ez komentatzen genuen. Argazki lehiaketak ere antolatzen genituen ordurako".

Ondoren, lan egiten zuen enpresa itxi egin zen, eta bizimodua aurrera ateratzeko, argazkilaritza hartu zuen lanbide: "Orduan zerbait egiten baldin banekien, argazkiak ateratzen zen, eta argazki denda eta estudioa ireki nituen Plazaberrin". Hogei bat urtean jardun zuen lanbide horretan, baina krisiak tarteko, erretiroa hartzeko adinaren aurretik itxi zuen negozioa. Batik bat argazkilaritzaren digitalizazioak erauntsi zioten ordura arteko argazki dendei. "Aldi berean tokatu zitzaizkigun krisi ekonomikoa, krisi digitala, baita krisi erlijiosoak ere. Ez dakit zenbat argazki-bobina errebelatzen bakar bat ere ez errebelatzera pasatu ginen bat-batean, eta inguruko argazki laborategi on asko itxi egin zituzten. Krisi ekonomikoaren eta erlijiosoaren ondorioz, ezkontzak ere asko jaitsi ziren. Dena batera tokatu zen, eta ez zuen merezi andrea eta biok hilabetero hain gutxi irabazten egotea. Ondorioz, denda itxi egin genuen. Atzera nire bizitzak itzuli osoa eman

zuen, eta afizioari segitu nion, naturan-eta argazkiak ateratzeari".

Digitalizazioak, ordea, alde onak ere ekarri ditu Beristainen ustez. "Aldaketa handia ekarri du digitalizazioak. Esaterako, egun argazki piloa egiten da, asko, eta batzuk dira txar-txarrak eta beste batzuk oso onak, lehen lortzen zirenak baino hobekak ere bai. Teknologiak erraztasunak ekarri ditu, irudiak txukuntzeko programa informatikoen-eta asko laguntzen dute".

Gaur egun, argazkilaritzako blogak edo webguneak ditu, eta hainbat sare sozialetan ere ibiltzen da. Blogetako batean berak egindako argazkiak jasotzen ditu, eta bestean, handik eta hemendik jasotako Azkoitiko eta Azpeitiko irudiak. *Iraurgi zuri-beltzean* bloga da bigarren hori: [iraurgizuribeltzean.blogspot.com](http://iraurgizuribeltzean.blogspot.com).

"Ordenagailuan zerbaiten bila nenbilen batean, Azkoitiko argazki bat ikusi nuen, polita iruditu zitzaidan eta gordetzea erabaki nuen. Gero, ahal nuen neurrian, Azkoitiari lotutako argazkiak jasotzea pentsatu nuen, eta denak batera jartzea. Azpeitiko irudi asko zegoela ere jabetu nintzen;



piloa, Loiolakoak. Denak batera biltzea merezi zuela pentsatu eta bloga sortu nuen. Lau urte-edo pasatu ditut Internet arakatzen".

Blogean eranstean zituen argazkiak, ordea, azalpen testutxoren bat eduki behar zutela pentsatuta, euskara ikasten hasi zen Beristain AEKn. "Euskaraz hitz egiten jakin arren, ez nintzen gai ikusten euskaraz idazteko, eta ez nuen nahi gaztelaniaz idaztea. Horregatik, jubilatutako orduko, AEKn hasi nintzen euskara ikasten. Lau ikasturte egin nituen".

Argazki denda itxi zuen arren, argazkiak ateratzen jarraitu du Beristainek, baina ez da beti kamera gainean ibiltzen duenetakoa. Hala ere, mendira irteten duenetan "beti-beti" eramaten ditu motxilan kamera eta objetiboak, eta baditu txoko gogokoak, kutunak. "Hemen ingurutik Aittola gustatzen zait gehien, pago gehienak-eta han baitaude. Samino ere polita da. Izarraitz aldea, berriz, ez dakit zergatik, baina gutxiago gustatzen zait".

Argazkiak "zientoka" egindako hiru toki dauzka: Aittola aldea, Getariako portua eta Sakoneta. "Horiek dira hemen inguruko hiru toki politenak, eta zaindu behar liratekeenak. Sakoneta bera ederra da, baina begira jarriz gero, zabor asko

ikusten da. Horrela egotea pena da, baina jendeak gauzak edonora botatzen dituelako da hori. Antzekoa pasatzen da Aittolan ere".

### **Saltsa desberdinetan**

Kezka sortzen dien kontuek eta gaiek eraginda herri mugimenduetan parte hartzera eraman dute azkoitiarra: "Beti izan naiz ni pixka bat saltseroa". Floreaga ikastetxeko guraso elkartean ibili zen aurrena: "Gure mutilek han ikasi zuten eta". Aizbe argazki denda zeukan artean, berriz, Azkoitiko eta Azpeitiko dendarien elkartea zen UEMERen (Urola Erdiko Merkatarien Elkarte) lehendakaria izan zen. Jubilatutako denetik, berriz, Azkoitiko Gure Esku Dagon, Egoitza Kaleran eta Urola Bizirik natur taldean ibili da. "Jubilatuta, egun osoa neukan nik nahi nuena egiteko, eta AEK utzi nuenean, Gure Esku Dagon hasi nintzen buru-belarri". Erabakitzeko eskubidea aldarrikatuz herrian egindako hainbat ekintza "oso-oso hunkigarriak" izan direla uste du: "Herri galdeketa, esaterako". Gure Esku herri mugimenduan, baina, izurriak eragin kaltegarria izan du haren arabera: "Jendearen ilusioa hustu egin da, eta orain dena berriro puztu beharra dago. Gertu dago Pirinioetako Bidea ekimena,



**"ALDI BEREAN TOKATU ZITZAIZKIGUN  
KRISI EKONOMIKOA, KRISI DIGITALA,  
BAITA KRISI ERLIJIOSOA ERE"**

**"INGURUKO TOKIETATIK AITOLA  
GUSTATZEN ZAIT GEHIENBAT,  
PAGO GEHIENAK-ETA HAN DAUDE"**

azkoitiarrori hurbileko mendi bat argizatzea egokituko zaigu, eta ea zer irteten duen".

Gertuko esperientzia batek eramanda hasi zen Egoitza Kalera mugimenduan. "Zahartzen ari garen eran, kontu horiekiko sentsibilizazioa areagotu egiten da. Horrez gain, 2020an hil zen gure izeba batek lau urte pasatu zituen San Jose egoitzan. Hango kontuak nola ziren ezagutu egin nuen, eta Egoitza Kaleran hasi nintzen. Azkoitian bizitzen eta lanean bizi osoa eraman dutenek ez dute merezi baldintza horiek dituen egoitza batean egotea. Egoitza toki ederrean dago, baina han goian daude, aire libreko kartzela batean bezala. Hara sartzen zaituzte, eta handik kalera etortzeko ez daukazu ia aukerarik; alferrik esango dute igogailua jarriko dutela, alferrik autobusa ipiniko dutela... Gu harri-harri eginda gaude udalak kontu honetan daukan portaerarekin; herrian egoitza hartuko duen eraikinik eta dirurik ez dagoela dio. Ez dugu eskatzen berehala egoitza hartzeko etxe bat egiteko herrigunean. Guk eskatzen duguna da aukerak aztertzen hasteko; bada ere, eguneko zentroa herrigunean jartzeko aurrena, eta gainontzekoak nola ekarri aztertzeko gero".

Gertuko esperientziak Egoitza Kalerarekin bat egitera bezala, argazkilaritzak eraman du Beristain Urola Bizirik natur taldean murgiltzera. "Argazkiak ateratzerakoan, salaketa argazki bat egitea nahi ez baduzu, edertasunaren bila joaten zara, eta mendian edota kostaldean gauza zatar asko ikusten dira. Horrek kezkatuta hasi nintzen Urola Bizirik taldean. Egun, gainera, oso proiektu polita dugu Munoaundin".

Batean eta bestean, aspertzeko betarik gabe bizi da Beristain: "Loiolara-eta pasieran joateko astia ere edukitzen dut eta". Berak azaldu bezala, unean-unean egokitutako horri heldu eta aurrera egiten du, erraietatik ateratakotik biziz. ■■■■

bertako

gogekutchi | bescensiores

**EUSKARA,**

**GURE HELBURU KOMUNA**

www.22.kortikua

**HITZKERIA**

Auzoaren 1. etaberran

ARABA 945 712 822	BIZKAIA 946 523 935
GIPUZKOA 943 903 450	NAFARRA 948 870 917

DEITU EDO BERSITATU

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)



# Aldabaz aldaba

Ate zaharretan iltzatuta dauden metalezko piezak dira aldabak, eta horiek atearen aurka joaz ateratzen den *danba-danba* hotsa probestu izan da urte askoan etheen barrualdeko lagunei dei egiteko. Egun oso aldaba gutxi daude Azkoitian, eta horien arrastoaren atzetik aritu da Maxixatzen. Argazkiak eta testua: **Andoni Elduaien**.





### Historia apur bat

Aldabek Antzinaroan dute jatorria, baina ez zuten garrantzia artistikorik izan XIII. mendera arte. Orduan, eta bereziki XIV. mendetik aurrera, etxeetan, jauregietan, katedraletan eta elizetan hasi ziren orokortzen aldabak. Apurka-apurka, itxura eta soinu desberdina zuten aldabak hasi ziren nagusitzen, eta funtzio praktikoa ez ezik, apaingarri modura ere erabili izan dira. Kale Nagusiko 51. zenbakiko aldaba da irudikoa.



### Zaharrenak

Aldabarik zaharrenak mailu itxurakoak dira. Tipikoenak, ordea, uztai batetik zintzilik dauden giza edo animalia buru itxurakoak dira; horien artean lehoi burua izan da historian nagusi. Oraindik orain, Azkoitian badira horrelako eredu batzuk, adibidez Kale Nagusiko 49. zenbakian.



### **Sinesmenari lotuta**

Garai batean sinesmenarekin lotura zutelako ere jartzen diren aldabak; izan ere, gizaki edo animalia burua zuten aldabak zortearen seinale ziren. Hala eta guztiz, animalien keinu basatia adierazten zuten aldabek edota izaki mitiko nahiz jainko itxura zutenek etxea babesten zutela sinesten zen. Kale Nagusia 118 bebarruaren aurreko atean dago irudiko aldaba.



### **Esku itxurakoa, ohikoena**

Esku itxura dute Azkoitian dauden aldaba gehienek. Hatz findun eskua da, eta eraztunduna edo eraztunik gabea izan daiteke. Gainera, fruitu borobil bat du esku artean, atea jotzerakoan etxaurrean erortzen utziko balu bezala. Hori etxe horretako bizilagunen ontasun seinaleztat hartu izan da urte askoan. Irudiko aldaba Aingeru kaleko 20. zenbakiko atekoa da.



### **Aldaben arrastoa**

Gero eta ate gehiagoren irudia da honako hau. Azkoitiko etxebizitza batzuen atek erakusten dute garai batean izan zutela aldaba, baina, orain, ez dira mantentzen zenbait gorabehera tarteko. Horien artean, iragan historiko esanguratsua duten etxebizitzak daude Azkoitian. Inazio Iriarte kaleko ate hau da horren adibide garbiena.

### **Txirrina, lagun berria**

Dagoeneko erabilerarik ez duten apaingarri bihurtu dira aldaba gehienak; izan ere, gaur egun, atari gehienek txirrinak dituzte alboan, solairu bakoitzean bizi diren bizilagunei esfortzu berezirik egin gabe dei egiteko. Kale Nagusiko 20. zenbakiko ateari ateratako argazkia da. ■■■



# Titiak



MAITE LOPEZ

**T**itien kontua ez da oraingotzekoa. Ezer gutxi egongo da emakumeen bularrena baino gai iraultzaileagorik. Gizakiak, animalia ugaztuna izaki, emakumearen ugatzei zor dio taldekatze horren izendapena; ez, ordea, Rigoberta Bandinik Eurovisionerako aurkeztutako *Ay mamá* abestian aipatzen dituen gizatasuna eta edertasuna. Esan gabe doa, gizakiak ama-esnerik gabe bizirauteko gaitasuna duela, eta, halaber, titiak beti ez direla ederrak, are gutxiago, edertasunaren balioa nahitaez eransten duten gorputz atalak. Gainera, neskontzat "emakumea=elikatze-iturria + ederra" formula zeharo baztertzalea ez ezik, mugatua eta atzerakoia dela esango nuke.

Hiztegian *titi* tekleatu, eta kako zuzenek emakumearen bularraren balioidea dela zehazten dute. Gizonezkoen titipuntei nola deitzen ote zaien jakingurak jota, tetilla idatzi, eta, harrigarriro, *titi* hitza berriro, baina parentesi karratuek ugaztun arrei dagokiela ohartarazten dute. Bada, kafea denontzat!

Duela 29 mende, Homerok kantatu zuenez, Hekuba erregina troiatarrak semea heriotzetik babestu eta borrokatik urrundu nahian, bular bat erakutsi zion, haurtzaroz oroi zedin arrenka eta arerioa errefusa zezan oihukatuz. Adibide horrek emakumea bizitza emalea eta gizona borrokazalea dela irudikatzen balio zuen.

Bestalde, Santa Ageda bezperan oleska oroitarazten da Kintziano gobernadorearekin ezkontzeari uko egitearren, bularrak moztu eta hil arteko torturak pairatu zituen emakume gajo hura.

Gogoan ditut, uda batean, Benidormeko hondartzan, bi mutil gaztek titi bistan zegoen emakume bati egindako iseka eta iruzkin lotsagarriak. Agian, egun horrelako jarreraren ondorio zuzena da Bandiniren abestia beharrezkotzat jotzearen aldarria. Horrek justifika lezake, "ez dakit gure titiek zergatik beldurtzen duten hainbeste" kantatzeko premia 2022an.

Badirudi, gaur-gaurkoz, Venus lotsatiaren garaian gaudela, emakumeak, edertasunaren izenean, aipatu beharrik ez dagoen gorputzeko atal batzuk ezkutatu edo aieruz erakutsi behar dituelako.

Appollinairek ere, *Tiresiasen titiak* lanarekin hankaz gora jarri zuen orduko ikuslegoa. Bertan, Teresak, etxeoandre eta ama izateaz nazkatuta, sexuz aldatzea erabaki, eta Tiresias izena hartzen du, gizonezkoen onura eta begirune berberak jaso ahal izateko.

Agerikoa da, hortaz, titiak barra-barra egon direla historian, eta, hedaduraz, artean. Agnodizek, lehendabiziko andre ginekologoak, pazienteak limurtzeagatik salatuta, epaiketan tunika altxatu eta bularrak erakutsi zituen; izaera ordezipenaren delitua gehituta, heriotza zigoretik libratu zen emakume batzuek bere alde egin zutelako. Hortaz, ezkutatzeko beharra naturaltasunez ezabatzen dugunean, eta elkartasuna emakume zein gizonen artekoa denean, orduan iritsiko dira bestelako lirika baterako sasoiak. ■■■


**HEKUBA ERREGINAK  
BULAR BAT ERAKUTSI  
ZION SEMEARI,  
HAURTZAROAZ OROI  
ZEDIN ARRENKA**

### KOMUNIKAZIO MULTIMEDIA



egunkari

**1**



telebista

**1**



**4**

aldizkari



**7**

atan digital



**B**

BALEKE

**K**

KARKARA

**erlo**

ERLO



MAXIXATZEN

**UH**

UROLA KOSTAKO  
HITZA

**U**

UZTARRIA

**ZH**

ZARAUZKO  
HITZA

# Euskalduna, nor?



IXABEL JAUREGI

**B**iak ala biak Euskal Herrian jaiok. Bata Azkoitian, bestea Bilbon. 1901ean, gure herrikoak 2 urte zituela besteak 36, Lore Jokoak ospatu ziren Bizkaiko hiriburuan, eta dominak zein diplomak banatu zituzten, besteak beste, euskarazko zein gaztelerazko olerkirik ederrenentzat. Bilbotarra Salamankako Unibertsitatetik gonbidatuta joan zen Arriaga antzokira, eta euskararen gaiari eutsi orduko, zera esan zuen: "*El vascuence se extingue, sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción. Muere por ley de vida (...) Enterrémosle santamente, con dignos funerales, embalsamado en ciencia; lleguemos a los estudiosos tan entrañable reliquia. Porque el vascuence tiene que desaparecer por ser impropio de los actuales tiempos y recordar una época de barbarie, ignorancia y fanatismo*".

Azkoitiarra 13 urterekin herritik Santanderreko Unibertsitate Pontifiziora joan zenean, Nikolas Ormaetxea *Orix*e eta Jose Garcia Goldaz euskaltzaleak ezagutu zituen. Idatzi zuen guztia euskara hutsean egin zuen, nahiz eta gaztelania zein latina jakin; hautua egin zuen. 1925etik 1950era herriz herri ibili ondoren, jaioterrira itzuli zen, eta erdal giroa aurkitu zuen ikastetxeetan, irratietan, udalean... Euskal gazteria itota ikusi zuen, eta euskal giroa berpizteko ekintzen artean antzerki talde bat bultzatu zuen. Urtebetera talde horrek lehen

antzezlanak taularatu zituen Olimpian; horien artean *Iz*eko *aberatsa* irakurtzea animatzen zaituztet. Kantuz betetako komedia da: *Anttoni, Anttoni ate ondoan nago* ezaguna horkoa da, hitanoa erabiltzen dute antzezleek, hiztegia ere garai hartakoa da...

1953. urtean Donostiara joan zen. Zipitria eta Esnal andereñoei euskara erakusteari ekin zion, eta ikastolako lehen ikasleei euskal kantak irakasten zizkien.

*Nemesio Etxaniz teatrozaleen gogoan* aurkezpenari lotuta, Pako Sudupek dio gauza asko ikustea tokatu zitzaizola, Frankismoaren aurka borrokatu behar izan zuela, ia espetxeratua izateraino... Euskarak ordura arte landu gabeko lurrak lantzen ahalegindu zen, olerki erotikoak edota kantu modernoak sortzen, itzulpenak egiten...

Bizkaitarrak grekera, latina eta ingelesa zekizkien, eta bere 68 abizen euskaldunez harro omen zegoen, bere ustez euskalduna izatea hiltzera kondenatuta zegoen euskara taldea uzteko indar morala izatea omen zen, eta gaztelania erabiltzea euskal espirituak dimentsio nazionalak lor zitzan; are gehiago, unibertsalak.

Miguel Unamunok mundu zabalean ohorezko oihartzuna lortu zuen gaztelania hautatzeagatik, eta Nemesio Etxanizek kalerik ere ez du bere herrian, ezta euskal kultura usaindun txoko bat ere. Ez al da euskalduna euskara duena? ■■■

## Bertsoa paperean

GAIA: Buruko osasuna.  
Izena. Naia Arrizabalaga.  
Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*.


### Hankako edo buruko minez

esnatu ohi garenetan medikuaren gelara erraz jotzen dugu gehienetan aldiz min hoiak psikologiko zein mentalak direnetan sarri itotzen gara malkotan ta bakarrik logeletan ta irri faltsuak jartzen ditugu malkoz dauden masailetan.

### Depresioa, antsietatea

zulo ilunen antzeko bakardadea ere mingarri da hortik ateratzeko barne minak ez dira barruan gorde eta isiltzeko psikologoaren laguntza ere hor daukagu eskatzeko ze lbutrofeno ez da nahikoa barne minak sendatzeko!

# MARKETING DIGITALA



- WEB DISEINUA ETA ANALITIKA
- SEO LANAK ETA SEM KANPAINAK
- SARE SOZIALEN KUDEAKETA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- POSTA ELEKTRONIKO BIDEZKO MARKETINA

**GUKA**  ZERBITZUAK

## AIRE BERRITUAK

### 1 ARNASTU

Garbitu airea, zure etxeko partikulak, alergenok adibidez, kenduz. **Dyson etxea, Milar Larramendin bakarrik.**



### 2 XURGATU

Ke-erazgailu desberdinak ditugu: isilak, eraginkorrak eta garbiak. **Aukeratu zurea!**



### 3 BERRITU

Eman sukaldeari itxura berria, armairuak eta kaxoiak bakarrik aldatuz. **Obra txikia, aldaketa handia!**



Julio Urkixo, 16 bis • AZKOITIA • 943-85 18 97 • [www.milar.eus](http://www.milar.eus)



# FK

# KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943-85 20 52 • Faxe: 943-85 20 91

[j.artetxe@fkkopistegia.es](mailto:j.artetxe@fkkopistegia.es)